



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

2014-2016 aldiko Ekintza Planaren ebaluazioa

Vitoria-Gasteiz,
adinekoekin
adeitsua den hiria

MATIA
INSTITUTO GERONTOLÓGICO



2018ko urtarila

Vitoria-Gasteizko Udala. Gizarte Politiken eta Osasun Publikoaren Saila. Adinekoen Zerbitzua

Laguntza teknikoa: Matia Instituto

Edukia

Sarrera	3
Vitoria-Gasteizko datu soziodemografikoak	3
Lagunkotasun-proiektuaren garapena Vitoria-Gasteizen 2011-2016	16
2014-2016 aldiko Ekintza Planaren ebaluazioa	19
METODOLOGIA	19
EKARPENEN EBALUAZIOA	20
LIDERGOA	21
ZEHARKAKOTASUNA	21
SAREKO LANA	23
HEDAPENA.....	24
OROKORRA	24
PRODUKTU ETA EMAITZEN EBALUAZIOA	25
OROKORRA	26
AIRE ZABALEKO ESPAZIOAK ETA ERAIKINAK	28
Produktu-adierazleak	29
Emitza-adierazleak	31
GARRAIOA	33
Produktu-adierazleak	34
Emitza-adierazleak	36
ETXEBIZITZA.....	38
Produktu-adierazleak	39
Emitza-adierazleak	41
ERRESPETUA ETA GIZARTERATZEA.....	42
Produktu-adierazleak	42
Emitza-adierazleak	46
GIZARTE-PARTAIDETZA.....	48
Produktu-adierazleak	51
Emitza-adierazleak	53
HERRI-PARTAIDETZA.....	55
Produktu-adierazleak	56
Emitza-adierazleak	58
KOMUNIKAZIOA ETA INFORMAZIOA.....	59
Produktu-adierazleak	60
Emitza-adierazleak	62
GIZARTE ETA OSASUN-ZERBITZUAK	63
Produktu-adierazleak	66
Emitza-adierazleak	69
BESTE EKIMEN BATZUK	70
ONDORIOAK	72
Etorkizuneko proposamenak	75
Bibliografia	79

VITORIA-GASTEIZ, ADINEKOEKIN ADEITSUA DEN HIRIA

2014-2016 aldiko Ekintza Planaren ebaluazioa

Sarrera

Vitoria-Gasteizko datu soziodemografikoak

Vitoria-Gasteizek, guztira, 250.051 biztanle ditu, Biztanleen Udal Erroldako azken datuen arabera. Biztanle horietatik guztietatik, % 15,74k 16 urte baino gutxiago dituzte, eta % 63,62k, berriz, 16 eta 64 urte artean. Adinekoak, guztira, 51.621 dira; hau da, biztanleen % 20,64. Gizonezkoen taldean, % 18,96k dituzte 65 urte baino gehiago, eta emakumeen taldean, berriz, % 23,14k. Guztira 15.886 biztanlek 80 urte baino gehiago dituzte; hau da, % 6,35k. Horrela, 65 urte baino gehiagoko ia heren batek ditu 80 urte baino gehiago. Gizonezkoek dagokienez, % 4,93k dituzte 80 urte baino gehiago, eta, emakumeek dagokienez, berriz, % 7,98k. Hortaz, bistakoa da adineko emakume gehiago daudela, batez ere adinekoen artean. 88 biztanlek dituzte 100 urte baino gehiago; haietatik 78 emakumeak dira, eta 10, berriz, gizonak.

Vitoria-Gasteiz: biztanleak, adin tartearen eta sexuaren arabera (2018)

2018	Bi sexuak		Gizonak		Emakumeak	
	Guztira	Portzentajea	Guztira	Portzentajea	Guztira	Portzentajea
Guztira	250.051	100,0	119.462	100,0	125.172	100,0
16 urtetik beherakoak	39.352	15,74	20.312	17,01	19.040	15,21
16 eta 64 urte artekoak	159.078	63,62	78.882	66,03	80.196	64,07
65 urtekoak eta gehiagokoak	51.621	20,64	22.654	18,96	28.967	23,14
80 urtekoak eta gehiagokoak	15.886	6,35	5.895	4,93	9.991	7,98


Iturria: Vitoria-Gasteizko Udala. Biztanleen Udal Errolda.

Erroldako aurreko datuek erakusten diguten errealitate hau biztanleriaren piramidean ikus daiteke argiago. Piramide erregresiboa da, eta, bertan, adin txikienekek dagozkienetatik (oinarrikoak) 16 urtetik beherakoei dagozkienetara bitarteko taldeak estuagoak dira adin handiagoko taldeak baino. Bestalde, 30 eta 55 urte bitarteko adin taldean daude biztanle gehien. 65 urtetik gora, adin talde horren pisua arindu egiten da, nahiz eta oraindik handia izan.

Halaber, bi generoen artean aldeak daudela ikus daiteke piramidean; hain zuzen ere, emakume gehiago daude adin handieneko tartetan (80 urtetik gorakoetan). Bi arrazoiri zor zaie hori: batetik, gizonezkoen heriotza-tasa handiagoa; eta, bestetik, emakumeen bizi-itxaropen

handiagoa. Ondorioz, emakume gehiago daude 65 urtekoen taldean, gizonak baino, eta emakumeen kopuru hori handituz doa pixkanaka. Izan ere, azken urteotan, jaiotza-tasa txikitu egin da, eta bizi-itxaropena handitu. Nahiz eta itxuraz txikituz doazen bi sexuen heriotza-tasen arteko aldeak, oraindik ere gizonezkoak urte gutxiago bizi dira emakumeak baino.

Vitoria-Gasteiz: biztanleriaren piramidea (2018)



Iturria: Vitoria-Gasteizko Udala. Biztanleen Udal Errolda.

Vitoria-Gasteizko biztanleen bilakaera biztanleen urtetik urterako aldaketaren bidez azter daiteke. 2016ri dagokion datuaren arabera, biztanle horien kopurua handitu da gehien aurreko urtekoarekin alderatuta. Aldiz, lurraldeko eta herrialdeko datuei erreparatuz, hazkundera askoz ere txikiagoa izan da, bereziki Euskadin oro har, bertan hazkundera oso txikia izan baita.

Biztanleriaren azken hamarkadako aldaketa-indizearen arabera, emaitzen eredia antzekoa da. Kasu honetan, azken hamarkadan, Vitoria-Gasteizko biztanle kopurua hazi da gehien, eta, ondoren, Arabakoa. Aldiz, Euskadin oro har, aldaketa hori Vitoria-Gasteizkoa baino ia bost puntu txikiagoa da.

Vitoria-Gasteizko, Arabako eta Euskadiko aldaketa demografikoko indizeak (2016)

DEMOGRAFIA	Urtea	Vitoria-Gasteiz	Araba	EAE
Biztanleen urtetik urterako aldaketa (%)	2016	0,29	0,14	0,01
Biztanleen urtetik urterako aldaketa azken hamarkadan (%)	2016	7,49	7,35	2,61

Iturria: Eustat. Udalmap.

Jaiotza-tasa da adierazle garrantzitsuenetakoa bat. Jaiotza-tasa urte berean jaiotako pertsona kopuruaren eta lurralde jakin bateko biztanleen arteko erlazioa da. Vitoria-Gasteizkoa handiena da, eta, ondoren, Arabakoa (9,73 eta 9,48, hurrenez hurren). Bestalde, EAEko jaiotza-tasa zertxobait txikiagoa da (8,33).

Datu horrekin batera, hazkunde-tasa begetatiboa aztertuta, urtebeteen toki batean jaiotako eta hildako pertsona kopuruaren arteko aldea zein den jakin daiteke. Vitoria-Gasteizek izan du balio handiena (1,65), eta, ondoren, Arabak (1,19). Aldiz, EAEk -1,36ko balioa izan zuen aldi horretan. Hortaz, EAE biztanleak galtzen ari da, hildako pertsonen kopurua jaiotakoena baino handiagoa baita, eta Vitoria-Gasteiz eta Araba, berriz, biztanleak irabazten.

Bestalde, kanpoko migrazio-saldoak aldi jakin batean eta lurralde zehatz batean erregistratutako immigrazioaren eta emigrazioaren arteko erlazioa adierazten du. Kasu honetan, lurralde guztietan erregistratutako balioak antzeko samarrak dira; lurralde horietan, immigrazioak (hau da, lurraldeko alta kopurua) gainditu egiten du emigrazioa (edo lurraldetik irteten den pertsona kopurua). Horren arabera, gehiago dira Vitoria-Gasteizera, Arabara eta EAEn datozenak, joaten direnak baino.

Azkenik, biztanle guztietatik atzerritarrak zenbat diren ere jakin daiteke. Kasu honetan, Vitoria-Gasteizek hartzen ditu atzerritar gehien (8,53). Bestela esanda: 1.000 biztanletik zortzi baino gehixeago atzerritarrak dira. Bestalde, Araban eta EAEn, atzerritarren balio erlatiboa txikiagoa da (7,88 eta 6,36, hurrenez hurren).


Biztanleen mugimendu naturala Vitoria-Gasteizen, eskualdean, Araban eta Euskadin (2016)

BIZTANLEEN MUGIMENDU NATURALA	Urtea	Vitoria-Gasteiz	Araba	EAE
Jaiotza-tasa gordina (‰)	2016	9,73	9,48	8,33
Kanpoko migrazio-saldoa (‰)	2016	4,77	4,54	4,05
Hazkunde-tasa begetatiboa (‰)	2016	1,65	1,19	-1,36
Atzerritarrak (‰)	2016	8,53	7,88	6,36

Iturria: Eustat. Udalmap.

Hurrengo grafikoan, atzerritarren kopuruak 1998 eta 2017 artean izan duen bilakaera ikus daiteke. Ia bi hamarkadatan, atzerritarren kopurua ia bost aldiz handitu da, etenik gabe 1998tik 2012ra. Urte hartatik aurrera, apur bat behera egin du hiriko atzerritarren kopuruak.

Atzeritarren bilakaera (1998-2017)



Iturria: Vitoria-Gasteizko Udala. Biztanleen Udal Errolda.

Vitoria-Gasteizko biztanleen bilakaera aztertuta ikusten denez, azken 22 urteotan (alegia, 1996 eta 2018 artean), Vitoria-Gasteizek 35.817 biztanle gehiago ditu. Adin desberdinetako biztanleria talde guztiak handitu dira, baina, bereziki, 65 urteko eta gehiagokoena, 24.263 pertsona gehiago baititu (hau da, ia bikoiztu egin da).

Vitoria-Gasteiz: biztanleria, adin tarteen eta sexuaren arabera (1996)

1996	Bi sexuak		Gizonak		Emakumeak	
	Guztira	Portzentajea	Guztira	Portzentajea	Guztira	Portzentajea
Guztira	214.234	100,0	105.300	100,0	108.934	100,0
15 urtetik beherakoak	30.456	14,2	15.586	14,8	14.870	13,7
15 eta 64 urte artekoak	156.422	73,0	78.423	74,5	77.998	71,6
65 urtekoak eta gehiagokoak	27.358	12,8	11.291	10,7	16.067	14,7
80 urtekoak eta gehiagokoak	6.433	3,0	2.084	2,0	4.349	4,0


Iturria: INE: INEBASE. Biztanleen Udal Errolda.

Azken 22 urteotan biztanleen egituraren sortutako alde horiek argiago ikusten dira 1996ko biztanleriaren piramidea eta 2018koa alderatuz gero. Lehenengoan, jende gehiago dago 15 eta 34 urte arteko tartetean, eta gutxiago, berriz, 70 urtetik gorako adin taldeetan. Aldiz, 2018ko piramideak beste profil bat erakusten du, oso nabarmenak baitira belaunaldi gazteagoen pisu txikiagoa eta adin handieneko taldeen pisu handiagoa. Kasu honetan, bistakoa da «baby boom» izenekoari dagozkion taldeak urte gehiagoko posizioetara mugitu direla. Horretaz gain, apur bat egin du gora jaiotza-tasak, eta horrek ondorioak izango ditu etorkizunean.

Berriz ere agerikoa da Vitoria-Gasteizko biztanleen zahartze demografikoa; horrek erakusten du zer aldaketa izan diren biztanleriak adinaren arabera duen egituraren osaeran. Nagusiki bi

arrazoirengatik gertatu dira aldaketa horiek: jaiotza-tasa txikitzea eta bizi-itxaropena handitzea.

Vitoria-Gasteiz: 1996ko eta 2018ko biztanleriaren piramideak



Iturria: Vitoria-Gasteizko Udala eta INE: INEBASE. Biztanleen Udal Errolda.

Biztanleriaren zahartzea ez da berdina toki guztietan. Biztanleria jakin baten zahartze demografikoa aztertzeke, lurralde edo kokalekuak alderatu behar dira. Hurrengo taulan, Euskadiko eta Arabako biztanle guztietatik 65 urteko eta gehiagoko pertsonen portzentajea ikus daiteke. Euskadiri dagokionez, adinekoen zifra erlatiboa % 21,68koa da, eta, Arabari dagokionez, berriz, % 20,11koa. Kasu honetan, 2017an Vitoria-Gasteizko biztanle guztietatik adinekoen kopurua (% 18,25) EAEkoa eta Arabakoa baino zertxobait txikiagoa da.

Euskadiko eta Arabako biztanle kopuru osoa eta portzentajeak, sexuaren eta adinaren arabera


	2017	Guztira	65 urteko eta gehiagoko pertsonak	Biztanle guztietatik adinekoen portzentajea
EAE	Guztira	2.175.819	471.640	21,68
	Gizonak	1.056.378	199.549	18,89
	Emakumeak	1.119.441	272.091	24,31
Araba	Guztira	323.592	65.072	20,11
	Gizonak	159.497	28.895	18,12
	Emakumeak	164.095	36.177	22,05

Iturria: EUSTAT. Biztanleen Udal Errolda.

Hain zuzen ere, hirian, zahartze-tasa aztertu da, auzoka; hau da, biztanle guztietatik 65 urte edo gehiago dituztenen portzentajea. Horrela, haietako bakoitzaren konposizio demografikoa

dauden aldeak ikus daitezke. Adineko gehien dituen Vitoria-Gasteizko auzoa Gazalbide da; bertan, biztanle guztietatik 65 urte edo gehiago dituztenen proportzioa % 40,3koa da. Bestela esanda: auzoan bizi diren hamar pertsonatik lauk 65 urte baino gehiago dituzte. Aldiz, Zabalgana auzo gaztea da; bertan, % 2,3 soilik dira adinekoak. Auzo batetik bestera dauden alde handi horiek behar zehatz batzuk sortzen dituzte, eta eragina dute baliabideen berregituraketan eta plangintzan. Adinekoen etxebizitza non dagoen oso garrantzitsua da politika publikoak antolatzeko eta administratzeko.

Vitoria-Gasteizko zahartze-tasa (64 urtetik gorakoak), auzoka (2016)




Iturria: Vitoria-Gasteizko urtekari estatistikoa (2016)

Biztanleriaren zahartzearekin erlazionatutako beste adierazle bat mendekotasun demografikoaren tasa da. Tasa horrek mendeko pertsonen proportzioa adierazten du; hau da, lan egiteko adina duten biztanle guztietatik (16 urtetik 64 urtera bitartekoak) zenbat pertsona diren mendekoak. Tasa horren bidez jakin nahi da biztanle guztietatik 16 eta 64 urte bitarteko

zenbat pertsonak zain ditzaketen mendekotasun-egoeraren batean dauden pertsonak (haurrak nahiz adinekoak izan).


Emaitzen arabera, zifra hori handitu egin da, % 44,0tik (2009) % 53,9ra (2015). Tasa handitu ahala, handitu egiten dira ekonomikoki mendekoak diren biztanleak mantentzeak biztanleria aktiboari dakarzkion karga ekonomikoak. Kasu honetan, Vitoria-Gasteizko mendekotasun-tasa ia hamar portzentaje-puntu handitu da zazpi urteetan.



Iturria: Vitoria-Gasteizko urtekari estatistikoa (2016)

Vitoria-Gasteizko mendekotasun-tasaren auzokako emaitzak ere oso desberdinak dira. Auzo hauetan dago mendekotasun-tasa handiena: Pilar (lanerako adina ez duten biztanleen % 94,22, adinaren arabera biztanleria aktiboa izan daitezkeenetatik) eta Zaramaga (% 87,25). Aldiz, Zabalganak du mendekotasun-tasa txikiena; hots, % 35,99koa.


Mendekotasun-tasa, auzoka (2016)



Iturria: Vitoria-Gasteizko urtekari estatistikoa (2016)

Familia-unitateak ere aldatuz joan dira azken bi hamarkadetan. Batetik, Vitoria-Gasteizko familien batez besteko tamaina txikituz joan da; horrela, 2,9 kide izatetik (1998) 2,3 kide izatera pasatu dira (2017). Familiak kide kopuruaren arabera banatzeko moduan ere ikusten da aldaketa hori; izan ere, ugaritu egin dira kide bateko, biko edo hiruko familiak, eta gutxitu, aldiz, lau kideko edo gehiagoko familiak. Azken hamarkadetan, ia bikoiztu egin da kide bakarreko familien kopurua; hots, % 18,0tik % 33,0ra.

Evolución del porcentaje de personas solas en Vitoria Gasteiz



Iturria: Vitoria-Gasteizko urtekari estatistikoa (2016)

Adin guztietako biztanleen artean egin du gora kide bakarreko familien kopuruak. Adinekoen kasuan, osasun-egoera hobetzeagatik eta independentzia ekonomikoa areagotzeagatik handitu da bakarrik bizi direnen kopurua. Baina egoera horrek ahultasun handiagoa ere badakar laguntza behar dutenentzat. Bakarrik bizi diren pertsonak gizartetik isolatuta geratzeko eta baliabide ekonomiko gutxi izateko arriskua dute. Emakume alargun gehiago dago, heriotza-tasa handiagoa delako gizonen artean; horregatik pairatzen dute hein handiagoan emakumeek bakardadea, eta bakarrik egon ohi dira mendekotasunarekin eta laguntza-beharrarekin erlazionatutako arazoak hasten direnean (Sancho, 2010).


Familia-unitateak: familien kopurua eta tamaina (1998, 2008 eta 2017)

Familiak (1)	1998	2008	2017
Batez besteko tamaina	2,9	2,5	2,3
KIDE KOPURUA			
1 kide	13.657	25.004	35.897
2 kide	17.546	25.634	31.921
3 kide	16.949	20.187	19.354
4 kide	17.750	15.953	15.371
5 kide	5.998	3.640	3.341
6 kide	1.695	1.065	964
7 kide edo gehiago	692	822	568
FAMILIA KOPURUA	74.287	92.305	107.416
Adingabeak dituzten familien kop.	25.520	23.371	27.035
Adinekoak dituzten familien kop.	20.004	26.216	34.065
FAMILIEN PORTZENTAJEA			
Kide bakarreko familien % (2)	% 18	% 27	% 33
Adingabeak dituzten familien % (3)	% 34	% 25	% 25
Adinekoak dituzten familien % (4)	% 27	% 28	% 32

Iturria: Vitoria-Gasteizko urtekari estatistikoa (2016)

- (1) Familia: ahaidetasunagatik edo ahaidetasunik gabe bizikidetz-unitatea osatzen duten pertsonak
- (2) Kide bakarreko familia kop., familia guztietatik, bider 100
- (3) Gutxienez adingabe bat duten familien kop., familia guztietatik, bider 100
- (4) 64 urte baino gehiagoko familien kop., familia guztietatik, bider 100

Bestalde, familiaren osaera ere aldatuz joan da. Familia guztietatik gutxienez adingabe bat duten familien kopurua txikituz joan da, eta familia horiek familia guztiekin alderatuta duten pisu erlatiboa ia hamar portzentaje-puntu murriztu da. Aldiz, 64 urte baino gehiagoko pertsonak dituzten familiek familia kopuru osoarekin alderatuta duen pisu erlatiboak gora egin du; hain zuzen ere, bost portzentaje-puntu (hots, % 27,0tik % 32,0ra). Hiriko adinekoen kopurua handitu egin delako gertatu da hori.



Biztanleriaren bilakaera aztertzeko beste adierazle batzuk bizi-itxaropenari buruzko datuak dira. Adierazle horiek plan edo estrategia jakin baten inpaktua neurtzeko erabiltzen dira. Pertsonen osasunean eta ongizatean gertatzen diren epe luzerako aldaketak dira inpaktuak; ongizate hori lortzeko, adinekoen ingurune fisikoa eta soziala hobetu nahi da, partzialki gutxienez (OME, 2015). Nahiz eta inpaktu-adierazleetan faktore ugariak duten eragina, eta nekez lot daitezkeen hiria adinekoen beharretara egokitzeke egiten diren ahaleginekin, garrantzitsua da faktore horiek adierazle multzo batean sartzea ingurunea aldatzeak epe luzera zer inpaktu dituen ikusteko.

Vitoria-Gasteizen kasuan, ez dago Ekintza Planaren denboraldiari buruzko daturik; hortaz, ez dago plan honek makro-mailan duen inpaktua neur dezakeen adierazlerik. Edonola ere, dauzkagun datuak eskaintzen ditugu, etorkizuneko inpaktua ebaluatu ahal izateko oinarri gisa.

Gizonen eta emakumeen jaiotzetiko bizi-itxaropenaren adierazlea dugu, Vitoria-Gasteizko oinarritzko osasun-eremuen arabera; informazio hori Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailak prestatutako dokumentutik atera da (2015). Jaiotzetiko bizi-itxaropenak adierazten du batez beste zenbat urte biziko litzatekeen jaioberri bat bizitzan zehar adinaren arabera heriotza-

tasa espezifikoak aplikatuko balitzaizkio. Oinarrizko osasun-eremua lehen mailako osasun-arretako taldearen lanerako erreferentzia gisa balio duen mugapen geografikoa da.

Sexuen arabera banatuta bildu dira datuak, garrantzitsua baita ekitatea neurtzeko balio izan dezaketen datu berezituak kontuan hartzea. Ekitate-adierazleek estratifikatzaile sozialen arabera banakatzen dituzte datuak; esaterako, sexua, adina, aberastasuna eta auzoa. Horrela, desberdintasuna neurtzeko dauden irizpide guztiak erakusten dira (OME, 2015).

Etorkizunean, adierazleak biltzerakoan, ekitate-neurriak ere sartzea gomendatzen da; hau da, sexuen, adin taldeen, auzoen eta bestelakoen arabera estratifikatutako datuak. Neurri horiek esku hartzeko arlo guztietan eta adierazle mota guztietan aplikatu behar lirateke, ekarpenen, produktuen, emaitzen eta inpaktuaren arabera ekitatea aztertzeko balio duen informazio zehatza lortzeko.

Jaiotzetiko bizi-itxaropena biztanleen heriotza-tasaren laburpen-neurri bat da; heriotza-tasarekin erlazionatutako beste adierazle batzuk baino ulerterrazagoa da, eta biztanleria taldeen artean dauden osasuneko desberdintasunak detektatzeko aukera ematen du. «Pertsonak beren klase sozialaren, generoaren, lurraldearen edo etniaren arabera osasunarekin erlazionatutako zer aukera eta baliabide dituzten» dira osasuneko desberdintasun sozialak.

Jaiotzetiko bizi-itxaropena Vitoria-Gasteizko eta EAEko oinarrizko osasun-eremuetan (gizonak, 2006-2010)

		Bizi- itxaropena	% 95eko K.T *	EAErekiko aldea **
EAE		85,1	[85,0 - 85,2]	
Ranking	Oinarrizko osasun-eremuak (ESI)			
	1 Santa Luzia (Araba)	88,0	[85,9 - 90,2]	handiago
	2 Lakua-Arriaga (Araba)	87,1	[83,9 - 90,2]	ez dago alde esang.
	3 Gasteiz Hirigunea (Araba)	87,0	[86,1 - 88,0]	handiago
	8 Lakuabizkarra (Araba)	86,5	[83,6 - 89,5]	ez dago alde esang.
	9 Gazalbide-Txagorritxu (Araba)	86,5	[85,3 - 87,7]	handiago
	10 Aranzabizkarra I (Araba)	86,5	[85,3 - 87,7]	handiago
	20 Pilar (Araba)	86,0	[83,8 - 88,2]	ez dago alde esang.
	21 Olarizu (Araba)	86,0	[84,8 - 87,1]	ez dago alde esang.
	27 Ariznabarra-Ajuria- San Martin (Araba)	85,9	[85,0 - 86,7]	ez dago alde esang.
	33 Zaramaga (Araba)	85,6	[84,2 - 87,0]	ez dago alde esang.
	73 Alde Zaharra (Araba)	84,9	[83,7 - 86,0]	ez dago alde esang.
	105 Gasteiz Hegoaldea (Araba)	84,0	[81,6 - 86,4]	ez dago alde esang.
	113 Abetxuko (Araba)	83,7	[79,5 - 87,9]	ez dago alde esang.
	119 Aranzabizkarra II (Araba)	82,1	[80,1 - 84,0]	txikiago
* % 95eko konfiantza-tartea				
** EAEkoarekin alderatuta, bizi-itxaropen nabarmenki handia (edo txikia) duten eremuak hauek dira: konfiantza-tartearen beheko (edo goiko) muga EAE osorako bizi-itxaropenaren konfiantza-tartearen goiko (edo beheko) balioa baino handiagoa (txikiagoa) duten eremuak.				

Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Osasun Saila (2015): jaiotzetiko bizi-itxaropena Vitoria-Gasteizko eta EAEko oinarrizko osasun-eremuetan (gizonak, 2006-2010)

Bizi-itxaropenari buruz dauden datuen arabera, alde nabarmenak daude generoen eta hiriko oinarritzko osasun-eremuen artean. Adibidez, 2010ean, bizi-itxaropen handiena Vitoria-Gasteizen hegoaldeko gizonak zuten, batez beste 82,0 urtekoa; aldiz, Abetxukon bizi zirenek 75,7ko bizi-itxaropena zuten. Hortaz, 6,3 urteko aldea zegoen hiriko eremu batetik bestera. Gainera, Vitoria-Gasteizen hegoaldeko gizonak dute Euskadiko bizi-itxaropen handiena. Vitoria-Gasteizko oinarritzko lau osasun-eremu daude Euskadiko gizonen bizi-itxaropen handiena duten hamar eremuen artean.

Emakumeen kasuan, bizi-itxaropen handiena 88,0 urtekoa da (Santa Luzia), eta txikiena, berriz, 82,1 urtekoa (Aranbizkarra II). Kasu honetan, eremu bateko eta besteko bizi-itxaropenen arteko aldea 5,9 urtekoa da. Santa Luziako bizi-itxaropena Euskadiko handiena ere bada. Lakua-Arriaga eta Gasteiz erdialdea bigarren eta hirugarren tokietan daude, hurrenez hurren. Vitoria-Gasteizko sei eremu daude Euskadiko emakumeen bizi-itxaropen handiena duten 10 eremuen artean.

**Jaiotzetiko bizi-itxaropena Vitoria-Gasteizko eta EAEko oinarritzko osasun-eremuetan
(emakumeak, 2006-2010)**

		Bizi-itxaropena	% 95eko K.T *	EAErekiko aldea **
EAE		78,1	[78,0 - 78,2]	
Ranking	Oinarritzko osasun-eremuak (ESI)			
1	Gasteiz Hegoaldea (Araba)	82,0	[79,4 - 84,6]	handiago
4	Lakua-Arriaga (Araba)	80,9	[78,4 - 83,3]	handiago
6	Aranbizkarra I (Araba)	80,6	[79,4 - 81,8]	handiago
15	Ariznabarra-Ajuria- San Martin (Araba)	79,6	[78,7 - 80,5]	handiago
16	Gazalbide-Txagorritxu (Araba)	79,6	[78,3 - 80,9]	handiago
17	Santa Luzia (Araba)	79,6	[77,5 - 81,6]	ez dago alde esang.
37	Gasteiz Hirigunea (Araba)	78,7	[77,4 - 80,0]	ez dago alde esang.
43	Zaramaga (Araba)	78,6	[77,0 - 80,2]	ez dago alde esang.
44	Elgoibar (Debarrena)	78,5	[77,4 - 79,7]	ez dago alde esang.
55	Aranbizkarra II (Araba)	78,1	[76,4 - 79,8]	ez dago alde esang.
61	Olarizu (Araba)	77,9	[76,7 - 79,2]	ez dago alde esang.
101	Lakubizkarra (Araba)	77,0	[75,0 - 79,0]	ez dago alde esang.
113	Alde Zaharra (Araba)	76,1	[74,7 - 77,4]	txikiago
115	Abetxuko (Araba)	75,7	[72,6 - 78,8]	ez dago alde esang.
* % 95eko konfiantza-tartea				
** EAEkoarekin alderatuta, bizi-itxaropen nabarmenki handia (edo txikia) duten eremuak hauek dira: konfiantza-tartearen beheko (edo goiko) muga EAE osorako bizi-itxaropenaren konfiantza-tartearen goiko (edo beheko) balioa baino handiagoa (txikiagoa) duten eremuak.				

Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Osasun Saila: jaiotzetiko bizi-itxaropena Vitoria-Gasteizko eta EAEko oinarritzko osasun-eremuetan (gizonak, 2006-2010)

Eraitza horiei esker, gizarte- eta osasun-politikan eta osasunarekin erlazionatutako beste politika sektorial batzuetan ahalegin handiagoa eskatzen duten Vitoria-Gasteizko eremuak identifika daitezke, baita desberdintasunak txikitzeko planetan aipatzen diren esku-hartzeak bideratu ere.

Gainerako euskal hiriburuekin alderatuta, Vitoria-Gasteizko oinarritzko osasun-eremuetan bizi-itxaropen handiagoa izan zen, bai gizonei dagokienez, bai emakumeei dagokienez. Hiriburuetako bizi-itxaropenen arteko aldeak desberdinak dira sexuaren arabera. Gizonen artean Vitoria-Gasteizko bizi-itxaropena Bilbokoa baino 1,5 urte handiagoa da; alde hori 0,6koa da emakumeen kasuan. Nabarmentzekoa da, halaber, gizonei dagokienez, Vitoria-Gasteizen eremuen % 75 baino gehiagotako bizi-itxaropena Bilboko eta Donostiako batezbestekoaren gainetik dagoela.

Jaiotzetiko bizi-itxaropena (% 95eko konfiantza tartea) EAEko hiriburuetan (2006-2010)

	Gizonak		Emakumeak	
Bilbao	77,6	(77,3 - 77,8)	85,2	(84,9 - 85,4)
Donostia/San Sebastián	78,4	(78,1 - 78,8)	85,6	(85,2 - 85,9)
Vitoria-Gasteiz	79,1	(78,7 - 79,4)	85,8	(85,4 - 86,1)

Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Osasun Saila: jaiotzetiko bizi-itxaropena Vitoria-Gasteizko eta EAEko oinarritzko osasun-eremuetan (gizonak, 2006-2010)

Osasunaren eta desberdintasun sozialen faktore erabakigarri nagusietako bat bizitokia da. Bizi-itxaropenak eremu geografikoen artean erakusten dituen aldeak bi mailatan eragina duten arrazoi konplexuei zor zaizkie. Alde batetik, inguru horretan bizi direnen banako ezaugarri sozioekonomiko eta demografikoak daude (klase soziala, generoa, jatorri-herrialdea), eta ezaugarri horiek haien bizi- eta lan-baldintzak zehazten dituzte. Bestetik, testuinguruaren edo ingurunearen ondorioak toki geografikoaren ezaugarriak dira, eta haiek biztanleriaren osasuna zehazten dute. Hauek dira, besteak beste, testuingurunearen edo ingurunearen ondorioak: ingurune fisikoa, ezaugarri sozioekonomikoak eta kulturalak, hirigintza, lan-merkatua, dauden zerbitzu publiko edo pribatuak eta aisiako ekipamenduak. Bi mailak, banakoa eta testuingurukoa, oso kontuan izan behar dira bai bizi-itxaropenari lotuta dauden desberdintasunak azaltzeko bai desberdintasunei aurre egiten lagunduko duten politikak garatzeko.

Lagunkoitasun-proiektuaren garapena Vitoria-Gasteizen (2011-2016)

2011n sartu zen Vitoria-Gasteiz hiri lagunkoien proiektuan, eta mugimenduari atxiki zitzaizkion estatuko lehenengo hirietako bat izan zen. Mugimendu hori Osasunaren Mundu Erakundeak (OME) jarri zuen martxan, 2005ean.

Age-Friendly Cities proiektua munduko biztanleen bi joera bereizgarri erantzuteko asmoz sortu zen: zahartze demografikoa eta urbanizazio-prozesua. Gero eta gizarte zahartuagoetan bizi gara, eta gero eta ingurune urbanizatuagoetan. Proiektu honen helburua da ahalik eta probetxu handiena ateratzea adin handieneko biztanleek zahartuz doazenen bizimodua erraztuko duten inguruneak sortzeko duten ahalmenari. Adinekoekin lagunkoia diren hirietan, politikek, zerbitzuek, inguruneek eta egiturek pertsonen zahartze aktiboa sustatzen eta ahalbidetzen dute (OME, 2007).


Vitoria-Gasteizko lan-prozesuari hasiera emateko, lagunkoitasuneko diagnostiko bat egin zen, Vancouverreko Protokoloari eta OMEk ezarritako metodologiari jarraikiz. 4 fase ditu, eta etengabeko hobekuntza-zikloan oinarritzen da (1. Diagnostikoa eta plangintza, 2. Ezarpena, 3. Ebaluazioa, eta 4. Etengabeko hobekuntza). <<Bottom up>> (behetik gora) hurbilpenaren bidez garatzen da; haren arabera, herritarren partaidetza oro har, eta adinekoena bereziki, proiektu honen oinarri nagusia da. Gizarte-eragileek eta sektore pribatuak ere hartzen dute parte, baita administrazio publikoak ere; hain zuzen ere, administrazio publikoa arduratzen da erabakiak hartzeaz eta ekintzak martxan jartzeaz. Prozesu hori, bestalde, esku hartzeko zortzi eremuak egituratuta dago: aire zabaleko espazioak eta eraikinak, garraioa, etxebizitza, gizarte-partaidetza, errespetua eta gizarteratzea, herri-partaidetza eta enplegua, komunikazioa eta informazioa, eta gizarte- eta osasun-zerbitzuak.

Esku hartzeko eremuak



Hiriko 70 pertsona inguruk hartu zuten parte Vitoria-Gasteizko diagnostikoa egiteko lehenengo diagnosi-fasean. Amaierako txostenean, Vitoria-Gasteiz hobetzeko 112 proposamen jaso ziren guztira Vitoria-Gasteiz adinekoekin lagunkoiagoa bihurtzeko. Proposamen gehienak hiriko ingurune fisikoa hobetzearekin erlazionatuta daude (aire zabaleko espazioak, etxebizitza edo garraioa).


Diagnostikoa: hobetzeko proposamenen kopurua eta portzentajea



Iturria: geuk egin

Diagnostikoa egin ondoren, hiru urteko Ekintza Plana (2014-2016) prestatu zen, «Vitoria-Gasteiz, adinekoekin adeitsua den hiria». Bertan, 59 ekintza¹ zehatz bildu ziren, eta ekintza horietan, berriz, diagnostikoan deskribatutako hobetzeko 112 proposamenak.

Alderatzea: diagnostikoko proposamen kopurua eta Planeko ekintza kopurua, eremuka



Iturria: geuk egin.

¹ Planean adierazitako hasitako 59 ekintzak 62tan banatu dira txosten honetan, «Berdintasun Planean, Gazte Planean eta Haur eta Nerabeentzako Planean jasotako ekintzak garatzea» ekintza hirutan zatitu baita, plan espezifikoaren arabera.

Planak diagnostikoko proportzioei eutsi nahi izan die, eta dagokion pisua eman dio eremu bakoitzeko ekintza kopuruari. Horrela, ekintza gehien biltzen dituen eremua «Aire zabaleko espazioak eta eraikinak» da; eta, ondoren, «Gizarte- eta osasun-zerbitzuak» dago. Azken horretan, askoz ere ekintza gehiago proposatu ziren, hobetzeko proposamenekin alderatuta, Udalaren sail hau (Gizarte Politikak) arduratzen baita proiektuaz.

2014ko uztailan, herritarrei, Udaleko gainerako teknikariei, ordezkari politikoei eta elkarteei aurkeztu zitzaizkien diagnostikoa eta Ekintza Plana.

2014-2016 aldiko Ekintza Planaren ebaluazioa

Lagunkoitasun-mugimenduari atxikita dauden hiri eta komunitateek hitzematzen dute etengabe ebaluatu eta hobetuko dutela adinekoekiko egokitzapen-maila eta beren egiturak, politikak, inguruneak eta zerbitzuak egokituko dituztela, behar eta gaitasun desberdinak dituzten pertsonentzat irisgarriak izan daitezen eta haien gizarteratzea ahalbidetu dezaten (OME, 2015).

Ebaluazioa ikerketaren funtsezko fase bat da, ikerketa-aldian diseinatutako jarduerak benetako testuinguru batera egokitzen diren ikusteko aukera ematen duelako (Alvira, 1991), ikuspegi desberdinetatik (Bustelo, 1999); horrela, errazagoa da erabakiak hartzea eta epe luzera hobekuntzak aplikatzea, eta programa edo planaren benetako inpaktua antzematen da (Hernández & Martínez, 1996). Hasieran proposatutako gizarte-fenomenoari buruzko alderdi guztiak hartu behar dira kontuan, fenomeno hori ahalik eta informazio gutxienarekin ebaluatu ahal izateko eta, horrela, errazago hartu ahal izateko erabakiak (López & Gentile, 2010). Hori dela eta, ebaluazio-marko eta -adierazleak erabakigarriak dira hiriko inguruneak adinekoen beharretara egokituta dagoen ala ez esateko baloratzen diren elementuei dagokienez irizpide komun bat ezartzeko, eta elementu horien inguruko helburuak finkatzeko. Hiriaren egokitze-maila neurtzeko erabil daitezke adierazleak, baita esku-hartzeak gauzatu ahala denboran zehar dituzten aldaketen segimendua egiteko ere.

Segimendua eta ebaluazioa osasun publikoko jardunbide egokiak dira. Testuinguru honetan, emaitzak lortzera bideratutako kontu-emateko sistemaren parte izan behar lukete adierazleak, hiriak adinekoen beharretara egoki daitezen sustatzen duten ekimenak babesteko. Gainera, konpromiso politikoa eta soziala sustatzeko indar daitezke adierazleak; horrek, gainera, beste neurri batzuk ere sorraraz ditzake adinekoen beharretara egokitutako hiriak sustatzeko eta babesteko (Davis, 2011).

METODOLOGIA


2014-2016 aldirako Ekintza Planaren ebaluazioa egiteko, metodologia kuantitatiboak, kualitatiboak eta partaidetzakoak erabili dira. Metodologia kuantitatiboek datuak biltzeko eta aztertzeko balio dute; kualitatiboek, iritziak eta diskurtsoak biltzeko eta aztertzeko; eta partaidetzakoek, berriz, pertsonen ebaluazioaren prozesua eta emaitzak berengana ditzaten.

Ebaluazio honetan, Udaleko teknikariek, arduradun politikoek eta profesionalek hartu dute parte, ekintzetan parte hartuz, baina, batez ere, adinekoek; haiek izan dira esku-hartzeen bidez ezarri diren hobetzeko prozesuen protagonista, eta prozesuari buruzko ikuspegiak, iritziak eta balorazioak eskaini dituzte.

Ebaluazioa egiteko, *Oinarrizko adierazleak erabiltzeko gida. Hiriak adinekoen beharretara zer heinetan egokitzen diren neurtzea* (OME, 2015) erabili da; hartan oinarrituta, Udalak zehatz-mehatz aztertu du bildutako informazio guztia. OMEren Kobeko zentroak prestatu duen dokumentu horrek esparru bat eta adierazle multzo bat finkatzen ditu, hiri-inguruneak

adinekoen beharretara egokitzeko prozesuaren segimendua eta ebaluazioa egiteko toki bakoitzean zer adierazle aplikatu behar diren ezartze aldera.

Adinekoen beharretara egokitutako hiriei dagozkien adierazleak hautatzeko esparrua



Iturria: OME (2015): *Oinarrizko adierazleak erabiltzeko gida. Hiriak adinekoen beharretara zer heinetan egokitzen diren neurtzea.*

Hiriak adinekoen beharretara hobeto egokitzera eta, azken batean, zahartuz doan hiriko biztanleriaren osasuna eta ongizatea hobetzera bideratutako ahalegin koordinatuaren fase eta dimentsioen ikuspegi orokorra eskaintzen du OMEren esparruak (OME, 2005). Esparru hori gida modukoa da lagunkoitasun-proiektuan parte hartzen duten udalerrientzat, eta programa ebaluatzerakoan zer adierazle bildu behar liratekeen proposatzen du. OMEren proposamena orientagarria da, eta ebaluazioaren egoera eta ikuspegi estrategiko bakoitzera egoki daiteke.

EKARPENEN EBALUAZIOA

Hiriak adinekoen beharretara egokitzeko ekimenak martxan jarri, garatu eta mantentzeak arrakasta izateko funtsezkoak diren baliabideak eta egiturak dira ekarpenak (OME, 2015). Arlo horretan, adierazle garrantzitsuenetako bat Udalak programa gauzatzeko hartzen duen konpromiso politikoa da.

Adierazle horiei buruzko informazioa lortzeko, Ekintza Planeko informazioa aztertu zen, bilerak egin ziren proiektua zuzentzen duen talde teknikoarekin, eta zenbait elkarrizketa egin zitzaizkien funtsezko pertsona batzuei:

- Udaleko 2 ordezkari politiko
- Proiektua garatzen ari den udal teknikari bat
- Ekintzak ezartzen diharduen profesional bat

Hona hemen ebaluatu diren ekarpenen adierazleak:

- Goi-mailako konpromiso politiko: lidergoa
- Hainbat sailen laguntza: zeharkakotasuna
- Hainbat eragileren laguntza: sareko lana
- Proiektuaren zabalkundea: hedapena

LIDERGOA

Era honetako proiektu bat, hiri bateko alderdi guztietan eragina duena, garatu eta manten dadin, beharrezkoa da Udaleko ordezkari gorenaren konpromiso eta lidergo politiko izatea.

Proiektuan dagoen goi-mailako konpromiso politiko desberdina da. Alkatetzak konpromiso politiko handia du; horren erakusgarri da proiektua garatzeko alkateak sinatutako gutuna, funtsezko elementua programa OMEren sareari atxikitzeko. Hala ere, praktikan, inplikazio txikia da. Eragile nagusiekin izandako elkarrizketetan ere aipatu zen inplikazio politiko eskasa dagoelako pertzepzioa.

Ekarpenen adierazleak: lidergoa

Lidergoa	Handia	Ertaina	Txikia
Alkatearen sinadura	X		
Inplikazio politiko			X
Guztira		X	

Iturria: geuk egina.

Vitoria-Gasteizko Udaleko maila politiko gorenetik, konpromiso ideologiko handia dago proiektuarekin, baina konpromiso hori txikitu egiten da praktikan; azkenean, erdi-mailako konpromiso politiko geratzen da.

ZEHARKAKOTASUNA

Hiri lagunkoien proiektua diseinatzerakoan, Osasunaren Mundu Erakundeak proiektuaren zeharkakotasuna aitortzen du, eta hiriaren konplexutasuna islatzen duten ikerketa-ekintzako 8 eremu aurkeztu ditu. Eremu horiek hiri edo udalerrri guztietan aurki daitezkeen ingurune fisikoa, ingurune soziala eta udal baliabide eta zerbitzuak hartzen dituzte barnean. Horrela, erabaki politikoaren erdian jartzen da zahartzea, eta osasun-zerbitzuetatik edo osasunetik harantz dauden arloetan jarduten da, zeharkakotasunaren eta integrazioaren ikuspegitik. Hala ere, Vitoria-Gasteizko ekimena garatzerakoan, zeharkakotasuna ekimenaren prozesu eta ibilbide osoan aurkitu diren erronka nagusietako bat da.

Planeko ekintzek udal sailen eta beste erakunde eta zerbitzu batzuen inplikazioa dakarte. Vitoria-Gasteizko Udala 11 sailek, 3 udal enpresak eta 3 erakunde autonomiadunek osatzen dute. 17 atal horietatik, 9 berariaz ageri dira Ekintza Planean (8 sail eta 1 udal enpresa); hau da, erdiek baino gehiagok gauzatzen dute Plana.

Ekintzen banaketa, Udaleko sail, zerbitzu edo enpresa publikoaren arabera

ADMINISTRAZIOA / ATALA / SAILA*	Ekintza kop.
UDALA	5 (3 partekatuak)
ALKATETZAREN ETA ERAKUNDE HARREMANEN SAILA	2
KULTURA, HEZKUNTZA ETA KIROL SAILA	1
ENPLEGUAREN ETA GARAPEN EKONOMIKOAREN SAILA	1
INGURUMENAREN ETA ESPAZIO PUBLIKOAREN SAILA	10 (3 partekatuak)
HERRITARREN SEGURTASUNAREN SAILA	6 (3 partekatuak)
HIRIGINTZA SAILA	5 (1 partekatua)
PARTAIDETZA ETA GIZARTE ETXEEN SAILA	5 (3 partekatuak)
GIZARTE POLITIKEN ETA OSASUN PUBLIKOAREN SAILA	24 (4 partekatuak)
TUVISA UDAL ENPRESA	3 (1 partekatua)

(*)Sailen gaur egungo sailkapenaren arabera banaketa


Iturria: Vitoria-Gasteizko Udala. Gizarte Politiken eta Osasun Publikoaren Sailak egina.

Planeko 62 ekintzetatik, 10 hainbat sailek garatzen dituzte; 5 udal osoari dagozkio (hau da, udal sail eta erakunde guztiek batera lantzen dituzte); eta 3 Aldundiarekin eta Eusko Jaurlaritzarekin batera gauzatzen dira.

Gizarte Politiken Saileko Adinekoen Zerbitzua arduratu zen Plana prestatzeaz, hasieratik zerbitzu horrek bideratu baitu ekimena. Zerbitzuak diagnostikoa martxan jarri eta garatu zuen, hobetzeko proposamenak aztertu zituen, eta Plana bera prestatu zuen. Plana prestatu ondoren, sail eta zerbitzuei bidali zien, eta parte hartzeko aukera eman, baina erantzun eskasa jaso zuen.

Sail horretan bertan daude ekintza gehien; hain zuzen ere, udal ekintza guztien % 36,4, ekintza propioak eta beste eragile batzuekin partekatutakoak barne. Ondoren, Ingurumenaren eta Espazio Publikoaren Saila (% 16,9), Herritarren Segurtasunaren Saila (% 11,7%) eta Partaidetza eta Gizarte Etxeen Saila (% 10,4) daude. Ekintzen % 75 hartzen dituzte lau sail horiek; udaleko gainerako sail eta ataletako bakoitzak, berriz, ekintzen % 10 baino gutxiago hartzen ditu. Hortaz, ekintzak modu ekitatiboan banatuta daude erakunde desberdinen artean.

Ekintzen banaketa Udaleko erakundearen arabera



Iturria: Vitoria-Gasteizko Udala. Gizarte Politiken eta Osasun Publikoaren Saila. Geuk egina.

Beraz, erakundeek partaidetza txikia dute. Gainera, kontuan izan behar da Gizarte Politiken eta Osasun Publikoaren Saila (hain zuzen ere, Adinekoen Zerbitzua) izan zela Lagunkoitasun Plana prestatzen aritu zen eragile nagusia eta ia bakarra.

Zeharkakotasuna	Handia	Ertaina	Txikia
Inplikaturako udal sailak/enpresak		X	
Ekintza partekatutakoak			X
Ekintzen banaketa, erakundearen arabera			X
Guztira			X

Iturria: geuk egina

SAREKO LANA

Beste eragile batzuekiko elkarlanaren esparruan, Arabako Foru Aldundia eta Eusko Jaurlaritza ere inplikatzen dituzten ekintzak ezartzen dira Planean; hain zuzen ere, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea (Aldundia) eta Euskotren (Eusko Jaurlaritza). Ekintza Planean ez dira sartu administrazio publikoa ez diren beste eragile batzuk. Planeko ekintza guztietatik % 19,3 erakunde horiei aplikatzen zaizkie, propioak eta partekatutakoak barne.

Ekintzen banaketa: Udalekoak ez diren beste kanpo-erakunde batzuk

ADMINISTRAZIOA	Ekintza kop.
ALDUNDIA	3 (3 partekatutakoak)
EUSKO JAURLARITZA	6 (3 partekatutakoak)
GIZARTE ONGIZATERAKO FORU ERAKUNDEA. ALDUNDIA	5 (1 partekatutakoak)
EUSKOTREN. EUSKO JAURLARITZA	1

Iturria: Vitoria-Gasteizko Udala. Gizarte Politiken eta Osasun Publikoaren Saila.

Nahiz eta hiri bat adinekoen beharretara egokitzen bideratutako ekimen baten koordinazio-erakunde nagusia tokiko erakunde bat izan daitekeen, garrantzitsua da onartzea gobernuaz

kanpoko erakundeek (bereziki, gizarte zibilak eta sektore pribatuak) funtsezko zeregina dutela gobernu-ekintzen gabeziak konpontzeko edo ekintza horiek sustatzeko (OME, 2015).

Sareko lana	Handia	Ertaina	Txikia
Inplikaturako beste eragile batzuk			X
Ekintzen banaketa: beste eragile batzuk		X	
Guztira			X

Iturria: geuk egina.

Hortaz, muga nabarmenak daude Plana garatzeko prozesuan eragile publikoen, sozialen eta herri-eragileen inplikazioari dagokionez. Gauza bera ikusten da Planeko ekintza motetan, adineko gutxiak parte hartzen baitute ekintza horietako gehienak diseinatzen, garatzen edo gauzatzen.

Funtsezko pertsonen egindako elkarriketetan nabarmendu zen udal sailek eta beste administrazio batzuek ez dutela parte hartu ez Plana prestatzen ez Plana ezartzen. Guztietan aipatu da partaidetza funtsezkoa dela horrelako ezaugarriak dituzten ekimenetan.

HEDAPENA

Proiektuaren ebaluazioa baloratzeko funtsezko beste elementu bat herritarrek eta beste eragile batzuek ekimena zer heinetan ezagutzen duten kontuan hartzea da. Bai egindako elkarriketetan, bai aurrerago azalduko diren talde fokaletan, garbi ikusi da alderdi hori ere hobetu behar duela Vitoria-Gasteizko Udalak. Hala ere, nabarmendu behar da atal propio bat dagoela webgunean: «Vitoria-Gasteiz, adinekoekin adeitsua den hiria». Bertan, proiektuari buruzko informazioa ez ezik, hura garatzen sortutako txosten eta dokumentu guztiak ere kontsulta daitezke.

Elkarriketatutako pertsona guztiek esan zuten herritar gutxiak ezagutzen dutela ekimena, eta horrek eragin handia duela ekintzak garatzerakoan eta ekintza horietan modu aktiboan parte hartzerakoan, baita beste eragile batzuekin sarean lan egiteko aukeretan ere.

Hirian ez ezik, udaletxean ere gutxi zabaldua omen dago proiektua, Udaleko sail eta atalen artean. Horrek harreman zuzena du ekintzak martxan jartzerakoan aurkitutako trabekin, beste atal batzuen inplikazio eskasarekin eta ekimenaren zeharkakotasunarekin.

Hedapena	Handia	Ertaina	Txikia
Plana ezagutarazteko bideak (webgunea, liburuxkak...)		X	
Herritarrek Plana ezagutzea			X
Udalak Plana ezagutzea			X
Guztira			X

Iturria: geuk egina.

OROKORRA

Hortaz, ekarpenen ebaluazio orokorrak emaitza kaskarra ematen du; izan ere, konpromiso politikoak (inplikazio ertaina goi-mailako lidergoan) eta proiektuaren zeharkakotasun txikiak

(Adinekoen Zerbitzua kenduta, beste udal erakunde batzuen inplikazio txikia Plana prestatzen; emaitza txikiak sareko lanean, batez ere erakunde zibil eta pribatuen inplikaziorik ezagatik; eta ekimenaren hedapen txikia herritarren artean eta Udalean) proiektua arrakastatsua izateko funtsezkoak diren egitura ahulduak sortzen dituzte.

EKARPENAK	Handia	Ertaina	Txikia
Konpromisoa		X	
Zeharkakotasuna			X
Sareko lana			X
Hedapena			X
Guztira			X

Iturria: geuk egina.

Ebaluazio-prozesu honek hobetu beharreko alderdietan aurrera egiteko balio du, eta interesdunen konpromiso eta ekarpen handiagoak sustatzen ditu.

PRODUKTU ETA EMAITZEN EBALUAZIOA

Proiektu baten produktuak, nagusiki, aurreikusitako emaitza eta eraginak lortzeko gauzatutako esku-hartzeak dira; hau da, Planaren testuinguruan martxan jarritako programa eta ekintzak. Esku-hartze horien bidez, adinekoen beharretara egokitutako inguruneak sortzen dira, eta ingurune fisikoa eta soziala aldatzeko diseinatutako politika, zerbitzu edo programak izan daitezke. Ez dira kontuan hartzen esku-hartze berrienak soilik, baizik eta esku-hartze zaharragoak aldatu ere egiten dira (OME, 2015).

Produktuak ebaluatzeko, «Vitoria-Gasteiz, adinekoekin adeitsua den hiria» proiektuan zehar sortutako dokumentu guztiak berraztertu ziren, baita udal planak eta udalerriko egoerarekin erlazionatutako beste arlo batzuetakoak ere. Informazio horretatik Ekintza Planak beste plan batzuei buruz biltzen dituen adierazleetako batzuen datuak atera dira. Gainera, adierazle horiek biltzeko, Planak 62 ekintzetako bakoitzari buruz dauden adierazleak berraztertu dira.

Bestalde, emaitzen adierazleak esku-hartzeen bidez epe motzera eta ertainera komunitatean gertatutako aldaketa sozial eta fisikoei dagozkie (OME, 2015). Adierazle horiek lortzeko, xehetasunez bilatu dira Udalak sortutako datuak, OMEk ezarritako oinarritzko adierazleak edo antzekoak biltzeko. Oinarritzko adierazleak adinekoen beharretara egokitutako hiri-inguruneen segimendua eta ebaluazioa egiteko erabil litezkeen adierazle garrantzitsuenak dira (OME, 2015).

Era berean, emaitzen adierazleak lortzeko, adinekoen eta zaintzaileen 2 topaketa antolatu ziren, eta, haietako bakoitzean, 4 talde fokaletan banatuta egin zen lan. Proiektuaren bilakaerari buruzko informazioa biltzeaz gain, topaketa horiek gaitetako bakoitzaren alderdi positiboak, negatiboak eta hobetzeko arloak eztabaidatzea ere izan zuten helburu, 2011n egindako diagnostikoarekin alderatuta aztertu ahal izateko.

Bi saiotan egin zen kontsulta: bata, 75 urtetik beherako pertsonekin; eta bestea, berriz, 75 urteko eta gehiagoko pertsonekin. Saio bakoitzean, gizonez eta emakumeez osatutako lau taldetan banatu ziren partaideak, eta talde bakoitzak bi eremu zehatz aztertu zituen.

- 1. taldea: Aire zabaleko espazioak eta eraikinak, eta gizarte-sarea (13 partaide)
- 2. taldea: Garraioa eta etxebizitza (12 partaide)
- 3. taldea: Partaidetza eta enplegua, eta gizarte- eta osasun-zerbitzuak (12 partaide)
- 4. taldea: Errespetua eta gizarteratzea, eta komunikazioa eta informazioa (13 partaide)

Metodo horren bidez, aztertu beharreko eremuen alderdi positibo eta negatibo nagusiei buruzko eztabaida sustatu nahi izan zen, baita gaur egungo egoera eta Planaren hasieran zegoena alderatzea ere. Eremu baten inguruan eztabaidatzen amaitu ondoren, partaideek eremuari zegokion txartelean jartzen zuten erantzuna, eta azken lau urteetan izandako bilakaera baloratzen zuten (hobetu egin da, ez da aldatu, edo okerrera egin du). Bi item global ere sartu ziren partaide guztientzat: «Vitoria-Gasteiz, adinekoekin adeitsua den hiria» ekimenaren ezagutza-maila, eta hiriaren lagunkotasuna hobetu den ala ez jakiteko balorazio orokorra.

Nabarmentzekoa da talde fokaletan parte hartu zuten pertsonen zailtasun handiak izan zituztela gaur egungo egoera eta Planari hasiera eman aurretik duela 4 urte zegoena alderatzeko. Hori dela eta, txartelean jasotako emaitzak kontu handiz interpretatu behar dira.


Zaila denez pertsonak denbora tarte zehatz batean kokatzea (Planaren gauzatze-aldia), emaitzen ebaluazioari buruzko informazioa osatzeko, talde fokalen bidez 8 esku-hartze eremuei buruz lortutako informazioa eta 2011n egindako diagnostikoa alderatu ziren. Horren helburua izan zen taldeetan parte hartu zutenen pertzepzioen arteko antzekotasunak eta desberdintasunak ikustea, proiektuaren hasieran eta 5 urteren ondoren.

Produktu eta emaitzen ebaluazioa batera eta egituratuta aurkezten da, OMEk ezartzen dituen esku hartzeko 8 eremuetako bakoitzaren arabera. Planean ezarritako adierazleetan oinarrituta egin da azterketa, baita talde fokaletan eta funtsezko pertsonen egindako elkarrizketetan lortutako informazioan ere. Gizarte eta Osasun Zerbitzuek, gainera, adinekoentzako baliabideei egindako gogobetetze-azterlanak aztertzen dituzte.

OROKORRA

Ekintza Planean jasotako 62 ekintzak 93 adierazletan banatzen dira, haien betetze-maila aztertzeko. Adierazle horietatik guztietatik, % 18,3 ezin dira baloratu, ez baitira lortu horretarako datu nahikoak. Gainerako adierazleetatik (% 81,7), % 51,3k betetze-maila handia dute, osorik edo ia osorik garatu baitira; % 27,6k betetze-maila ertaina dute; % 5,3k, betetze-maila txikia; eta % 15,8, berriz, ez dira garatu edo, adierazlea neurtzerakoan, haien betetze-maila handitu ordez, txikitu egin da.

Produktu-adierazleak: orokorra



Iturria: geuk egina.

AIRE ZABALEKO ESPAZIOAK ETA ERAIKINAK

Kanpoaldeak eta eraikin publikoek eragin handia dute adinekoen mugikortasunean, independentzian eta bizi-kalitatean, eta, ondorioz, baita «etxean zahartzeko» gaitasunean ere (OME, 2007:16).

Eremu hau ebaluatzeko, oinarritzko adierazle hauek ezartzen ditu OMEk:

- Auzoan oinezkoentzako eremuak egotea: herrian onartutako irizpideak betetzen dituzten oinezkoentzako eremuak dituzten auzoko kaleen proportzioa.
- Espazio eta eraikin publikoen irisgarritasuna: gurpil-aulkian doazenentzat guztiz irisgarriak diren espazio eta eraikin publiko berrien eta lehengoaren proportzioa.

Illo horretan, Vitoria-Gasteizko Udalak oinarritzko zerbitzuen eta gune publiko irekien eskuragarritasunari buruzko informazioa du, eta, haren bidez, 2001tik 2016ra bitarteko bilakaera azter daiteke.

Oro har, zerbitzuen eskuragarritasun-maila ona da, bai etxetik 300 metroko inguruan, bai 500 metrokoan. Etxetik hurbilen, osasun-zerbitzuek dute etxetik 300 metroko inguruan zerbitzu horiek eskuragarri dituzten pertsonen portzentaje txikiena (hots, % 49,0koa 2016an). Hala ere, ingurunea 500 metrora handitzean, zerbitzu horiek eskura ditzaketen pertsonen portzentajea % 80,1ekoa da.

Bestalde, ikusi da, 2008tik 2016ra, eskuragarritasuna txikitu egin dela zenbait zerbitzutan; besteak beste, osasunekoak, botikak, dendak, finantza-erakundeak eta hezkuntza-zerbitzuak. Aldiz, beste zerbitzu batzuen eskuragarritasuna hobetu egin da; adibidez, kirol- eta kultura-zerbitzuena, garraio publikokoena eta birziklatzearekin erlazionatutako zerbitzuena.

Alderdi hori oso garrantzitsua da, baliabide eta zerbitzuak etxetik hurbil eskuragarri izatea funtsezkoa baita adinekoen eguneroko bizitzarako. Zerbitzu horiek eskuratu ahal izatea beharrezkoa da adinekoek parte hartzen jarrai dezaten, alde batera utzita dauzkaten muga funtzionalak.

Oinarritzko zerbitzuen eta gune publiko irekien eskuragarritasuna Vitoria-Gasteizen (2011-2016)

	< 300 m						< 500 m					
	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2011	2012	2013	2014	2015	2016
Espazio publiko irekiak	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100
Hezkuntza-zerbitzuak	83,75	84,46	83,32	83,59	82,29	85,94	95,11	95,11	94,47	94,12	93,82	95,38
Kirol-zerbitzuak	80,42	82,95	82,75	82,27	82,15	83,56	92,29	92,29	94,25	93,84	94,47	95,13
Establezimenduak	96,03	97,14	96,50	96,34	96,06	95,64	98,25	98,25	98,13	97,91	97,80	97,65
Kultura-zerbitzuak	72,23	71,11	69,31	68,48	76,01	76,78	88,57	88,57	85,98	85,09	91,79	91,35
Birziklatze	98,45	98,37	97,80	97,50	99,12	98,91	98,58	98,58	98,43	99,56	99,84	99,85
Botikak	88,88	87,99	87,09	86,24	85,71	83,75	94,72	94,72	94,81	94,41	94,04	92,64
Finantza-erakundeak	88,80	87,68	86,85	85,93	83,83	83,01	94,06	94,06	93,64	92,91	92,25	91,88


Iturria: Vitoria-Gasteizko Udala: Vitoria-Gasteizko urtekari estatistikoa (2016)

Gainera, kontuan izan behar da eremu honekin harreman zuzena duten hainbat plan espezifiko garatu direla hirian; hain zuzen ere, hauek: Vitoria-Gasteizko Irisgarritasun Plana, Aldaketa Klimatikoaren aurkako Plana (2010-2020), Agenda 21 eta Hiri Antolamendurako Plan Orokorra.

Produktu-adierazleak

Lagunkoitasun Planak 12 ekintza bildu zituen aire zabaleko espazioen eta eraikinen eremuan, eta 16 adierazleen bidez neurtzen dira. Adierazle horietatik, % 25 ezin dira baloratu, ez dagoelako informaziorik. Gainerako guztietatik, % 33,3 ez dira gauzatu, edo gutxi garatu dira; % 33,3k betetze-maila ertaina izan dute; % 25ek, betetze-maila handia; eta % 8,4k, berriz, betetze-maila txikia.

Aire zabaleko espazioak eta eraikinak: betetze-maila



Iturria: geuk egina.

Ezarpen-maila handiena duen ekintza hirian banku ergonomikoak sortzeari eta jartzeari dagokiona da. Alderdi bereziki positiboa da hori adinekoentzat, hirian zehar lasai ibil daitezkeelako, atsedenguneak eta sozializatzeko tokiak eskaintzen baitzaizkie. Ezarpen-emaitza onak lortu dira, baita ere, oinezko, txirrindulari eta gidarien arteko sentsibilizazioa eta bizikidetza lantzeko ekintzetan.

Aldiz, 5 adierazle ez dira garatu, gutxi garatu dira, edo atzera egin dute. Hauek dira: pixaleku publikoen kopurua handitzea, eta lapurretak eta iruzurrak saihestera bideratutako jardueren kopurua handitzea (bietan atzera egin da); kaleetako seinaleak aztertzea eta hobetzeko proposamenak egitea; eta, azkenik, semaforoaren iraupena aztertzea.

Aire zabaleko espazioak eta eraikinak: betetze-maila, adierazleen arabera

EKINTZAK	ADMINISTRAZIOA / ATALA / SAILA	ADIERAZLEAK, BANAKATUTA	BETETZE-MAILA	OHARRAK
Agenda 21ean bildutako ekintzak garatzea; ekintza horiek hainbat planetan jasota daude (besteak beste, mugikortasun orokorra, espazio publikoa, irisgarritasuna, hiri-antolamendua, etab.), eta eremu bati baino gehiagori eragiten diete (esaterako, hiri-kutsadura, trafikoa, garraioa, ura, energia, industria, hondakinak, hirigintza eta lurraldea, natura eta biodibertsitatea, osasuna eta ingurumen-arrikuak).	INGURUMENAREN ETA ESPAZIO PUBLIKOAREN SAILA	Agenda 21en betetze-maila	Ertaina	Martxan. Adierazleen % 37,14 lortu dira; % 30,55 partzialki bete dira; % 11,1ek okerrera egin dute; % 5,71k berdin jarraitzen dute; eta % 13,89 ezin izan dira baloratu.
Hirigune Historikoaren Irisgarritasuna Hobetzeko Planeko ekintzak garatzea.	INGURUMENAREN ETA ESPAZIO PUBLIKOAREN SAILA	Planaren betetze-maila: gauzatutako ekintza kopurua.	Ezin da baloratu	Ez dator bat. Plana ezabatu egin da, eta bertako ekintzak Vitoria-Gasteizko Irisgarritasun Planean sartu dira. Hainbat hobekuntza egin dira; besteak beste, Villa Suso eraikinaren barrualdea berritzea, eta Echanove eraikinaren, Eskoriatza jauregiko patioaren eta Frai Zakariseko udal eraikinaren irisgarritasuna hobetzea.
Banku ergonomikoaren diseinua aldatzea, etorkizunean instalatzeko.	INGURUMENAREN ETA ESPAZIO PUBLIKOAREN SAILA	Bankuaren diseinua egitea.	Handia	2015etik.
		Instalatutako banku kop.	Handia	2013an, 59 banku berri instalatu ziren, eta 2016an, berriz, 114.
Pixaleku publikoak hobetzea eta pasealekuetan berriak jartzea.	INGURUMENAREN ETA ESPAZIO PUBLIKOAREN SAILA	Pixalekuak hobetzeko ekintzen kopurua eta mota.	Ezin da baloratu	Ez dago daturik.
		Pixaleku gehiago eta toki gehigotan jartzea.	Okerrera egin du	Pixaleku publikoen kopurua txikitu egin da.
Bide-hezkuntza eta -segurtasuneko prebentzio-eta sentsibilizazio-programan dauden prestakuntza-ekintzak bultzatzea.	HERRITARREN SEGURTASUNAREN SAILA	Bide-segurtasuna eta bide publikoaren erabiltzaileekiko errespetua handitzera bideratutako jarduerak ugaritzea.	Ertaina	Mugikortasun Iraunkorraren eta Espazio Publikoaren Planaren eta Txirrindularientzako Mugikortasun Plan Zuzentzailearen inguruan sentsibilizatzeko eta haien berri emateko ekintzak gauzatu dira, baina tarteka bakarrik (adib.: «Beti alde onetik»).

Lapurretak eta iruzurrak saihesteko eta herritarren segurtasunaren inguruan sentsibilizatzeko programako prestakuntza-ekintzak bultzatzea.	HERRITARREN SEGURTASUNAREN SAILA	Lapurretak eta iruzurrak saihestera bideratutako jarduerak ugaritzea.	Okerrera egin du	Nabarmendu murriztu dira jardunaldien kopurua (% 89,47) eta jarduera horietan parte hartzen dutenena (% 73,32).
Txirrindularientzako araudi berria ezagutaraztea: txirrindularien eta oinezkoen eskubideak. Txirrindularien eta oinezkoen arteko bizikidetza-ohitura positiboak sustatzea.	INGURUMENAREN ETA ESPAZIO PUBLIKOAREN SAILA ETA HERRITARREN SEGURTASUNAREN SAILA	Informazio-ekintzen kop.	Ertaina	Informazio-ekintza bat egin zen: bizikletei buruzko araudi berria ezagutarazi da.
		Sentsibilizazio-ekintzen kop.	Handia	2 prestakuntza-kanpaina egin ziren: ikastetxeetako hezkuntza eta oinezko, txirrindulari eta gidarien arteko bizikidetza sustatzeko kanpaina.
Kaleetako seinaleak hobetzea.	INGURUMENAREN ETA ESPAZIO PUBLIKOAREN SAILA	Gaur egungo seinaleak berraztertzea.	Berdin jarraitzen du	Ez dira hobetu kaleko seinaleak. Gune jakin batzuetako seinaleak hobetu dira.
		Hobetzeko proposamenak.	Berdin jarraitzen du	Ez da ezer egin.
Bizikleta erabiltzeko sarea garatzea eta dagoena hobetzea.	INGURUMENAREN ETA ESPAZIO PUBLIKOAREN SAILA	Txirrindularientzako Mugikortasun Plan Zuzentzailearen betetze-maila: gauzatutako ekintza kopurua.	Ertaina - Handia	Planean jasotako neurrien % 61 ezarri dira.
Adineko gehien bizi diren auzoetako semaforoen iraupena aztertzea eta oinezkoen segurtasuna hobetuko duten proposamenak egitea.	HERRITARREN SEGURTASUNAREN SAILA	Alderdi hori aztertzeako gauzatutako ekintzak eta egindako proposamenak.	Ezin da baloratu	Ez dago daturik.
Dendarien elkarteei proposatzea adineko gehien bizi diren auzoetan pertsona horientzako deskontuak edo promozioak egin ditzaten, merkataritza sustatzeko neurri gisa.	ENPLEGUAREN ETA GARAPEN EKONOMIKO IRAUNKORRAREN SAILA	Elkarteen proposamen hau betetzeko gauzatutako ekintzak eta dendariak emandako erantzuna.	Txikia	Proposamena egin zaie dendarien elkarteei, baina ez dakigu era horretako deskontuak eskaini diren.
Zebra-bideetan erabiltzen den materiala aztertzea (botoi-lauzak), itsuei zebra-bideen berri emateko.	INGURUMENAREN ETA ESPAZIO PUBLIKOAREN SAILA	Material hori aztertzeako gauzatutako ekintzak.	Ezin da baloratu	Ez dago daturik.

Iturria: geuk egina.

Emaiza-adierazleak

Adinekoekin egindako talde fokaletan, alderdi positibo ugari hauteman ziren aire zabaleko espazioen eta eraikinen eremuan; besteak beste, hauek: hirian barrena oinez ibili ahal izatea; irisgarritasuna hobetzea, eraikin publiko gehienak baitira irisgarriak eta hobetu egin baita kaleen irisgarritasuna gurgil-aulkian doazen mugikortasunerako; eta parke eta berdeguneekin gogobetetasun handia izatea. Alderdi horiez gain, talde fokaletan beste alderdi

positibo asko ere nabarmendu ziren; esaterako, parkeetan ekintza fisiko arautuak egitea, bankuak jartzea eta haiek interakziorako gune gisa erabiltzea, eta eraikin publikoen esparruan osasun-zentroek balorazio ona jasotzea.

Hala ere, alderdi ugari hobetu behar direla ere adierazi zen. Irigarritasunaren esparruan, zentro soziokulturaletako komun batzuen irigarritasuna hobetzea proposatu zen, zuhaitzak kimatu behar direla adierazi zen, eta herritarren segurtasunik eza handitu dela nabarmendu.

Diagnostikorako sortutako taldeen eta ebaluaziorako sortutakoen emaitzak alderatuta, zenbait alderdi negatibo aipatu behar dira, eta behin eta berriro aipatzen dituzte adinekoek. Hauek dira alderdi horiek:

- Hainbat dendatan irigarritasun-arazoak egotea.
- Lauzak egoera txarrean egotea.
- Botoi-lauzek balorazio kaskarra izatea.
- Txakurrak uhalik gabe eramatea, eta, ondorioz, segurtasunik eza sortzea.
- Bide publikoan eta lorategietan txakur-gorozkiak egotea.
- Bizikletekin bizikidetza-arazoak egotea.
- Zenbait semaforok benetan behar den denbora ez ematea.
- Semaforoak ez errespetatzea.
- Gune batzuk behar bezain garbi ez egotea.
- Gune batzuetan argitasun nahikoa ez egotea, eta, ondorioz, segurtasunik eza sortzea.
- Komun publikorik ez egotea.
- Gune edo egoera batzuek segurtasunik eza sortzea.

Denboran alderdi horiek balorazio negatiboa izaten jarraitzeak ez du esan nahi aurrerapenik izan ez denik, baizik eta oraindik ez dela lortu maila onena eta oraindik ere hobetu daitezkeela pentsatzen dela.

Nabarmentzekoa da 2 alderdik balorazio positiboa izan zutela diagnostikoan, baina, orain, partaideek balorazio negatiboa eman diete. Haietako bat berdeguneak zaintzeari dagokio, eta azken urteotan okerrera egin duela adierazi dute. Bestalde, hirian argiztapen txikiko gune ugari daudela ere esan dute.

Talde fokalak: alderdi positiboen eta negatiboen kopurua (2011-2017)

	Alderdi positiboak		Alderdi negatiboak	
	Kop.	%	Kop.	%
2011ko diagnostikoa	19	42,22	26	57,78
2017ko ebaluazioa	18	32,73	37	67,27

Iturria: geuk egina.

Ebaluazioa egiteko adinekoekin sortu ziren talde fokaletan, eremu honi buruzko alderdi negatibo gehiago deskribatu ziren, 2011ko diagnostikoan baino. Hala ere, oro har, hiriko irigarritasuna hobetu zela nabaritu zen.

GARRAIOA

Garraioa, fisikoki irisgarria eta ekonomikoki eskuragarria den garraio publikoa barne, oso faktore garrantzitsua da zahartze aktiborako. Gai hau beste eztabaidagaietako askorekin erlazionatuta dago. Bereziki, hirian barrena ibili ahal izanez gero, gizartean parte har daiteke, eta zerbitzu komunitario eta osasunekoetara joan (OME, 2007: 24).

Eremu hau ebaluatzeko, oinarritzko adierazle hauek ezartzen ditu OMEk:

- Garraio publikoko ibilgailuen irisgarritasuna: adinekoentzat edo ezintasunen bat duten pertsonentzat eserlekuak dituzten garraio publikoko ibilgailuen proportzioa.
- Garraio publikoko geroalekuen irisgarritasuna: garraio publikoko geroaleku batetik hurbil (500 m) dauden etxebizitzaren proportzioa.

Udalak bildutako adierazleen artean, hauek daude: garraio kolektiboaren erabilera 2011tik 2016ra, hiri-autobusa eta tranbia erabiltzen dutenen kopuruaren bilakaera eta biztanleko dauden bidaiarien bilakaera.

Garraio publikoa erabiltzeari dagokionez, irisgarritasuna bereziki ona da, ia etxebizitza guztiak baitaude hiriko garraiobide publikoren batetik 500 metrora baino gutxiagora, edo, batzuetan, baita 300 metrora ere. Urteetan zehar, gorakada txiki bat izan da, nahiz eta 2011ko hasierako datuak dagoeneko oso altuak izan (etxeen % 98,63 garraiobide kolektiboren batetik 300 m-ra baino gutxiagora zeuden, eta % 99,6, aldiz, 500 metrora baino gutxiagora).

Garraio kolektiboaren eskuragarritasuna Vitoria-Gasteizen (2011-2016)

	< 300 m						< 500 m					
	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2011	2012	2013	2014	2015	2016
Garraio kolektiboa (%)	97,21	97,05	96,62	97,99	98,12	98,22	98,63	98,63	98,63	99,56	99,58	99,60

Iturria: Vitoria-Gasteizko Udala: Vitoria-Gasteizko urtekari estatistikoa (2016)

Hiri-autobusa eta tranbia erabiltzen dutenen mugimenduak izandako bilakaeran ere ikusten da goranzko joera. 2011tik 2016ra, garraiobide horiek erabili dituztenen kopurua etengabe handitu da urtero, hilero eta egunero.

Bidaiarien mugimenduaren bilakaera: hiri-autobusa eta tranbia

URTEA	Urteko bidaiari kop.	Hilekoa	Egunekoa
2011	19.256.709	1.604.726	52.758
2012	19.440.875	1.620.073	53.263
2013	20.048.845	1.670.737	54.928
2014	20.381.021	1.698.418	55.838
2015	21.466.452	1.788.871	58.812
2016*	21.944.462	1.828.705	60.122

Oharra: 2010ean hasi zen lanean tranbia

* 2016ko abenduko datuak (behin-behinekoak). Gutxi gorabeherako datuak dira.

Iturria: Vitoria-Gasteizko Udala

Azkenik, biztanle bakoitzeko bidaia kopuruak emaitza onak ditu 2011tik 2016ra. Urtean biztanleko egindako bidaia kopuruari dagokionez, handituz joan dira 2011tik (80 bidaia urtean, biztanleko) 2016ra (89 bidaia urtean, biztanleko). Aldiz, hileko bidaia kopurua, biztanleko, bere horretan mantendu da (7 bidaia hilean, biztanleko).

Biztanleria eta bidaiariak biztanleko

URTEA	Biztanleria	Urteko bidaia kopurua, biztanleko	Hileko bidaia kopurua, biztanleko
2011	240.580	80	7
2012	243.298	80	7
2013	242.147	83	7
2014	242.924	84	7
2015	245.036	88	7
2016*	246.042	89	7

* 2016ko abenduko datuak (behin-behinekoak). Gutxi gorabeherako datuak dira.

Iturria: Vitoria-Gasteizko Udala

Garraioari buruzko adierazleen bidez ikusten denez, irisgarritasuna ona da, eta biztanleek maiz erabiltzen dute. Hori bereziki esanguratsua da Vitoria-Gasteizko adinekoen artean, adin horietako pertsonak izan ohi duten narriatze fisikoa eta udalerriaren zabalera kontuan hartuta.


Udalak plan hauek garatu ditu garraioaren arloan: Txirrindularientzako Mugikortasun Plan Zuzentzailea (2010-2015) eta Vitoria-Gasteizko Mugikortasunaren eta Espazio Publikoaren Plana.

Produktu-adierazleak

Garraioaren eremuak sei ekintza zehatz eta zazpi ebaluazio-adierazle ditu. Adierazle horietatik guztietatik, hiru (hau da, % 42,9) ezin izan dira baloratu, daturik ez zegoelako. Hala ere, bildutako adierazle guztietatik, % 75ek betetze-maila handia izan dute.

Ekintza hauek izan dute betetze-maila handiena: Mugikortasun Iraunkorraren Planeko ekintzak eta gidari profesionalek bidaiariei ematen dieten arreta hobetzeko ekintzak. Bi ekintza talde horiek (Mugikortasun Iraunkorraren Planeko ekintzak eta gidari profesionalek bidaiariei ematen dieten arreta hobetzeko ekintzak) zuzenean hobetzen dute hiriaren lagunkotasuna. Bigarren ekintza taldea bereziki garrantzitsua da, diagnostikoan aipatu ziren hobetu beharreko alderdietako bat izan baitzen gidariek eskaintzen duten arreta. TUVISA enpresak hiru tailer eman dizkie autobus-gidariei, hainbat alderdi hobetzeko: pertsonen eman beharreko arreta (20 parte-hartzaile), adimen emozionala (31 parte-hartzaile) eta bezeroarentzako arretaren kalitatea (3 parte-hartzaile).

Garraioa: betetze-maila



Iturria: geuk egina.

Garraioa: betetze-maila, adierazleen arabera

EKINTZAK	ADMINISTRAZIOA / ATALA / SAILA	ADIERAZLEAK, BANAKATUTA	BETETZE-MAILA	OHARRAK
Garraio egokitua erabiltzeagatik mendeko adinekoei laguntzak emateko aukera aztertzea.	GOFE	Era honetako laguntzak sustatzeko gauzatutako ekintzak.	Ezin da baloratu	Ez dago daturik.
Mugikortasun Iraunkorraren Planean jasotako ekintzak garatzea.	INGURUMENAREN ETA ESPAZIO PUBLIKOAREN SAILA, HERRITARREN SEGURTASUNAREN SAILA, TUVISA ETA HIRIGINTZA SAILA	Planaren betetze-maila: gauzatutako ekintza kopurua.	Handia	Planeko neurrien % 71 ezarri dira.
Tranbiaren barruko segurtasuna hobetzea.	EUSKOTREN	Gauzatutako ekintza kopurua; euspen-barrak jartzea...	Ezin da baloratu	Euskotrenen arabera, zerbitzua guztiz irisgarria da; hortaz, ez da gauzatu hobekuntza-ekintzarik.
Mugikortasun urriko pertsonen autobusetara igotzeko baliabideak eskaintzea, gidariari zerbitzua eskatu beharrik izan gabe.	TUVISA	Proposamen hori ahalbidetzeko gauzatutako ekintzak.	Ertaina	Altuera handiagoko plataformak jarri dira autobusera errazago sartzeko eta autobusetik errazago ateratzeko, eta 10 kartel jarri dira ondo ikusteko moduko tokietan.

Profesionalek bidaiariei ematen dieten arreta hobetzea.	TUvisa	Prestakuntza-orduak	Handia	Hiru prestakuntza-tailer egin ziren (guztira, 48 ordu).
		Aztertutako gaiak	Handia	Gai hauek aztertu dira: bezeroarentzako arretaren kalitatea, bezeroarekiko komunikazioa, bezeroaren profila.
Hirian aparkaleku gehiago izatea.	HERRITARREN SEGURTASUNAREN SAILA, INGURUMENAREN ETA ESPAZIO PUBLIKOAREN SAILA.	Aparkalekuen Plan Zuzentzailearen betetze-maila.	Ezin da baloratu	Ez dago daturik.

Iturria: geuk egina.

Emaiza-adierazleak

Adinekoekin sortutako talde fokaletan, alderdi positibo ugari aipatu ziren; besteak beste, adinekoek garraibide desberdinak erabiltzea, edo tranbia hobetzea. Oro har, azken urteotan garraioa nabarmen hobetu zela adierazi zen.

Talde guztiek alderdi negatibo hauek aipatu zituzten: gurgil-aulkian doazenek autobusean sartu ezin izatea haur-kotxearekin doazen pertsonak daudenean; jendeak eserlekua ez uztea behar handiagoa duten pertsonen; eta Vitoria-Gasteizen autoa gehiegi erabiltzeagatik kutsadura handia egotea. Gainera, bi alderdi negatibo aipatu ziren behin baino gehiagotan, lagunkotasunean eragin handia dutelako. Bata oinezkoen eta bizikleten arteko gatazka da, eta behin baino gehiagotan aipatu zen taldeetan eta elkarrizketatutako eragile nagusietako batzuen artean. Bestea, berriz, hirian barrena joatean oinezkoek eta gidariak zailtasunak aurkitzen zituztela da, eta, ondorioz, arauak urratu behar izan zituztela; besteak beste, semaforoak, abiadura-muga edo zebra-bideak ez errespetatu. Parte-hartzaile gehienek ustez, azken urteotan oinezkoek jokabide kaskarragoa dute, eta gutxiago errespetatzen dituzte trafikoko arauak.

Herritarrek ekimenaren lehenengo fasean (2011ko diagnostikoa) egindako balorazioak geroago talde fokaletan egindakoekin alderatzean, ebaluazioa antzekoa da; alegia, oro har, mezuak positiboak dira, baina hobetu beharreko alderdiak desberdinak.

Talde fokalak: alderdi positiboen eta negatiboen kopurua (2011-2017)

	Alderdi positiboak		Alderdi negatiboak	
	Kop.	%	Kop.	%
2011ko diagnostikoa	11	45,83	13	54,17
2017ko ebaluazioa	12	44,44	15	55,56

Iturria: geuk egina.

Azkenik, aipatu behar da, elkarrizketatutako funtsezko pertsonetako baten arabera, hiriaren lagunkoitasuna hobetzeko landu beharreko lehentasunezko alderdietako bat dela garraioa, eta azken urteotan garraioa hobetu egin dela, hein handi batean garraio publikoko sare berriari esker. Hala ere, oraindik gabezia handiak omen daude; besteak beste, autobus-lineen ibilbideak luzatzeko beharra, bereziki hainbat eratako zerbitzu publikoak dauden tokietara.

ETXEBIZITZA


Etxebizitza funtsezkoa da segurtasunerako eta ongizaterako. Lotura bat dago etxebizitza egokiaren eta zerbitzu komunitario eta sozialen eskuragarritasunaren artean, eta lotura horrek eragina du adinekoen independentzian eta bizi-kalitatean. Garbi dago oro har asko baloratzen direla etxebizitza eta laguntza; haiei esker, adinekoak eroso eta seguru zahartu daitezke beren komunitatean (OME, 2007: 34).

Eremu hau ebaluatzeko, oinarrizko adierazle hau ezartzen du OMEk:

- Etxebizitzaren arrazoizko prezioa: diru-sarreraren % 30 baino gutxiago etxebizitzara bideratzen dituzten adinekoen proportzioa.

Illo horretan, Vitoria-Gasteizko Udalak informazioa du Araban salgai dauden etxebizitza berrien batez besteko prezioak (€/m²) izan duen bilakaerari buruz. Horren haritik, babes ofizialeko etxebizitzek eta salmenta librekoek bilakaera desberdina izan dute. Oro har babes ofizialeko etxebizitzaren prezioak gora egin du pixkanaka 1994tik (nahiz eta bilakaera irregular samarra izan 1994tik 1998ra), eta haien prezioak 500 eta (gaur egun) 1.500 euro artean egon dira metro koadroko. Aldiz, salmenta libreko etxebizitzaren bilakaera irregularra izan da urte horietan guztietan (batzuetan, gora egin du, eta besteetan, berriz, behera), baina oro har 1999tik 2006ra gora egin du, eta orduz geroztik behera pixkanaka. Etxebizitza horien prezio txikiena 1994an erregistratu zen (1.100 euro baino zertxobait gehiago metro koadroko), eta prezio handiena, berriz, 2006an (3.600 euro metro koadroko). 2016an, batez besteko prezioa 2.500 eurokoa da.

Araban salgai dauden etxebizitza berrien batez besteko prezioak (€/m²) izan duen bilakaera



Iturria: EUSTAT: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Eraikuntzaren eta Etxebizitzaren Estatistika.


Produktu-adierazleak

Etxebizitzaren eremuan, Planak zazpi ekintza espezifiko biltzen zituen, eta adierazle kopuru bera. Ekintza horietatik, bat ezin da baloratu, ez baitago daturik. Gainerakoetatik, % 33,3k betetze-maila handia du; beste hainbestek, betetze-maila ertaina, edo ez dira gauzatu.

Ekintza hauek dute betetze-maila handiena: bizigarritasuna hobetzeko laguntza-ildo berriak aztertzea (hemen, diruz lagun daitezkeen jardunak gehitu dira), eta erorketak saihesteko programa indartzea. Lehenengoari dagokionez, etxeetara egiten diren bisita kopurua handitu da, eta asko hobetu da etxebizitzaren bizigarritasuna. Bigarrenari dagokionez, gora egin du tailer eta partaide kopuruak, eta prebentzio-maila hobetu egin da.

Bestalde, ekintza hauek geratu dira gauzatu gabe: irizpideak zabaltzea, adinekoek Eusko Jaurlaritzaren menpe dagoen babes ofizialeko etxebizitza bat eskura dezaten; eta, profesionalen laguntzarekin, adinekoek kudeatutako zerbitzua sustatzea, etxeko konponketa txikiak egiten laguntzeko (ekintza honi dagokionez, ikuspegi teknikitik egin zitzaion uko hura martxan jartzeari).

Etxebizitza: betetze-maila



Iturria: geuk egina.

Etxebizitza: betetze-maila, adierazleen arabera

EKINTZAK	ADMINISTRAZIOA / ATALA / SAILA	ADIERAZLEAK, BANAKATUTA	BETETZE-MAILA	OHARRAK
Bizigarritasuna hobetzeko laguntza-ildo berriak aztertzea.	HIRIGINTZA SAILA	Era horretako laguntzak sustatzeko gauzatutako ekintzak.	Handia	Diruz lagun daitezkeen bost jarduera gehitu dira.
Etxebizitzen irisgarritasuna hobetzeko diru-laguntzen zenbatekoak handitzea eta irizpide gehiago zehaztea.	HIRIGINTZA SAILA	Era horretako laguntzak gehitzea.	Ezin da baloratu	Ez dago daturik.
Erorketak saihesteko programa indartzea.	GIZARTE POLITIKEN ETA OSASUN PUBLIKOAREN SAILA	Erorketak saihesteko programa areagotzea.	Handia	Are gehiago handitu dira etxebizitzetara egindako bisita kopurua (% 42), tailer kopurua (% 25) eta prestakuntza-zikloen kopurua. Partaide kopurua ere handitu da (% 41, tailerretakoa; eta % 7, prestakuntza-zikloetakoa).
Profesionalen laguntzarekin adinekoek kudeatutako zerbitzu bat sustatzea, etxean konponketa txikiak egiten laguntzeko.	GIZARTE POLITIKEN ETA OSASUN PUBLIKOAREN SAILA	Mota horretako zerbitzuak sustatzeko gauzatutako ekintzak.	Ez da gauzatu	Ez da gauzatu.
Obra berriko etxebizitzetara buruzko araudian sartzea komunitateko batek dutxa maila berean izan behar duela.	EUSKO JAURLARITZA	Aldatutako araudia.	Ertaina - Txikia	Babes ofizialeko etxebizitzetan bi komun egonez gero, bigarrenen nahitaez dutxa egotea.
Hutsik dauden beheko solairuko lokaletan diruz lagundutako obrak egin daitezkeen aztertzea, mugikortasun-arazoak dituzten pertsonentzako edo irisgarritasun- eta bizigarritasun-arazoak dituzten etxebizitzetan bizi diren pertsonentzako etxebizitza gisa erabili ahal izateko.	HIRIGINTZA SAILA	Era horretako jarduerak proposatzeko gauzatutako ekintzak.	Ertaina - Txikia	Hiri Antolamendurako Plan Orokorren bidez aztertu beharreko gaitako bat da.
Adinekoek babes ofizialeko etxebizitza bat eskuratu ahal izateko irizpide gehiago aplikatzea.	EUSKO JAURLARITZA	Aldatutako araudia.	Ez da gauzatu	Ez da aldatu araudia.

Iturria: geuk egina.

Emaizta-adierazleak

Elkarrizketatutako pertsonen arabera, etxebizitza da Vitoria-Gasteizen hobetu beharreko funtsezko elementua. Bai taldeetan bai elkarrizketetan esan denez, azken urteotan hobetu egin da etxebizitza, baina, komun ugari egokitu eta dutxa maila berean jarri arren, oraindik ere gabezia handiak daude irisgarritasunari dagokionez. Etxebizitzaren ezaugarri estrukturalengatik igogailua jartzeko aukera ez dagoen kasuetan zailtasunak sortzen direla nabarmendu zen, baita horrek Vitoria-Gasteizko pertsona asko beren etxeetan isolatuta geratzea eragin dezakeela ere.

Diagnostikoaren emaitzekin alderatuta, lau alderdi positibo daude, eta bere horretan mantentzen dira denborak aurrera eginda ere: beren etxebizitzaren irisgarritasuna eta bizigarritasuna hobetzen duten pertsonen kopurua handitzea, eraikuntza berriko etxebizitzek irisgarritasun ona izatea, tutoretzapeko apartamentuek balorazio ona jasotzea eta haiekin pozik egotea, eta etxebizitzekin atxikimendua sortzea eta haietan bizitzen jarraitu nahi izatea. Gainera, beste alderdi positibo batzuk ere aipatu dira; esaterako, etxebizitzaren irisgarritasuna hobetzeko laguntza ekonomikoak egotea, laguntza horiek egotearen inguruko ezagutza handitzea, eta bainuontziaren ordeztu dutxa jartzeko eskatu dutenen kopurua handitzea. Horri guztiari erreparatuta, garbi dago adinekoak kontzienteago direla arriskuaz, balio handia ematen diotela prebentzioari, eta dauden baliabideak ondo ezagutzen dituztela.

Talde fokalak: alderdi positiboen eta negatiboen kopurua (2011-2017)

	Alderdi positiboak		Alderdi negatiboak	
	Kop.	%	Kop.	%
2011ko diagnostikoa	12	48	13	52
2017ko ebaluazioa	7	38,89	11	61,11

Iturria: geuk egina.

Hobekuntza horiek egin diren arren, oraindik ere beharrezkotzat jotzen da laguntza gehiago ematea irisgarritasuna hobetzeko, berriz ere talde fokaletan aipatu diren alderdi negatiboetako bat. Halaber esan zuten bizikidetzaz arazoak daudela auzotarren artean, batez ere eraikinaren irisgarritasunari buruz; horren adibide da Alde Zaharra. Bestalde, Vitoria-Gasteizko etxebizitzaren prezioa garestia dela ere nabarmendu zen.

Ebaluazioan sortutako taldeetan, bizikidetzarekin erlazionatutako alderdien balorazio negatiboak egin ziren. Auzotarren arteko bizikidetzaz arazo gehienak etorkinekiko harremanei eta inmigrazioaren inguruan dauden pertzepzio negatiboak lotuta daude. Nabarmenezkoa da inmigrazioaren gaia ez zegoela taldeetan aztertu beharreko gaien artean, baina berez atera zen; hortaz, hiriaren ezkutuko arazoa da.

ERRESPETUA ETA GIZARTERATZEA

OMEren arabera, adinekoek diote kontrako jarrerak eta jokabideak jasaten dituztela besteengandik. Batetik, askok sentitzen dute errespetatzen eta onartzen dituztela eta gizartearen parte direla, baina besteek, ordea, ez dituztela kontuan hartzen komunitatean, zerbitzuetan eta familian. Horren arrazoia da gizartea bera eta jokabide-arauak aldakorrak direla, belaunaldien artean ez dagoela harremanik, eta ezjakintasuna dela nagusi zahartzeari eta adinekoei dagokienez. Faktore ugari eginkizun garrantzitsua dute; besteak beste, kultura, generoa, osasun-egoera eta estatus ekonomikoa. Adinekoek hiriko bizitza sozial, zibiko eta ekonomikoan duten partaidetza-mailak ere harreman estua du gizarteko parte sentitzearekin (OME, 2007: 47).

Eremu hau ebaluatzeko, oinarrizko adierazle hau ezartzen du OMEk:

- Adinekoen aldeko jarrera sozial positiboa: adinekoei tratatu txarrak eman zaizkiela azaleratzen duten kasuen kopurua (adinekoen kopuru osoaren proportzio gisa).

Horren haritik esan behar da, nahiz eta Vitoria-Gasteizko Udalak adierazle horren bilakaerari buruzko informaziorik ez izan, Planean bazegoela ekintza bat tratatu desegokia edo tratatu txarrak hautemateko, saihesteko eta desagerrarazteko plan bat martxan jartzera eta profesionalak tratatu egokia ematearekiko sentibilizatzera bideratua. Gainera, ekintza horrek ezarpen-maila handia lortu du. 2016an, 37 pertsona artatu ziren Planaren esparruan; kopuru horrek garbi erakusten du Udalak aurrera egin duela lan-eremu honetan.

Eremu honi dagokionez, Udalak elkarri lotuta dauden hainbat plan ditu martxan, eta haietako ekintzek adinekoekiko errespetua eta haien gizarteratzea hobetzen dute. Hauek dira plan horiek:


- Bizikidetzarako eta Dibertsitaterako Plana
- Hezkuntza Zerbitzuaren Plan Estrategikoa
- Vitoria-Gasteizko Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako Plana
- Vitoria-Gasteizko Gazte Plana
- Haur eta Nerabeentzako Tokiko Plana

Produktu-adierazleak

Hasieran, Lagunkoitasun Planak errespetuarekin eta gizarteratzearekin erlazionatutako bederatzi ekintza biltzen zituen, eta ekintza horiek, berriz, bederatzi adierazletan oinarrituta aztertzen ziren. Baina, ekintza horietako batzuk oso zabalak eta ugariak direnez, azkenean 12 ekintza eta 21 adierazle ezarri dira.

Adierazleen % 9,5 ez dira baloratu, ez dagoelako informaziorik. Gainerakoetatik, % 68,4k ezarpen-maila handia lortu dute; % 15,8k, ezarpen-maila ertaina; % 5,3k, ezarpen-maila txikia; eta % 10,5 ez dira ezarri.

Errespetua eta gizarteratzea: betetze-maila



Iturria: geuk egina.

Ekintza hauek izan dute ezarpen-maila handiena: Berdintasun Planean eta Gazte Planean bildutako ekintzak garatzea, nahiz eta azken horretan ez den ekintzarik gauzatu adinekoein; tratu desegokia edo tratu txarrak hautemateko, saihesteko eta desagerrarazteko plan bat martxan jartzea; profesionalak tratu ona ematearekiko sentsibilizatzea; belaunaldien arteko ekintza kopurua eta jarduera komunitarioena handitzea; auzotarren arteko harremanak sustatzea, komunitateak adinekoei lagundu ahal izateko; eta, azkenik, familia zaintzaileei baliabide psikosozialen eta atseden hartzeko baliabideen bidez laguntzea, eta haien lana aintzatestea.

Nabarmentzekoa da Berdintasun Planean, Gazte Planean eta Haur eta Nerabeentzako Planean bildutako ekintzak garatzera bideratutako ekintza hiru ekintzatan banatu dela, kasu bakoitza sakon aztertu ahal izateko. Horrela, Berdintasun Planak betetze-maila handia izan du ekintza guztietan eta adinekoei zuzendutako ekintza espezifikoetan. Bestalde, Gazte Plana modu eraginkorrean garatu da ekintza gehienetan, baina ez du biltzen adinekoei zuzendutako ekintzarik. Azkenik, Haur eta Nerabeentzako Planak betetze-maila ertaina du adinekoei zuzendutako ekintzei dagokienez, baina ez dakigu nola garatu diren gainerako ekintzak.

Errespetua eta gizarteratzea: betetze-maila, adierazleen arabera

EKINTZAK	ADMINISTRAZIOA / ATALA / SAILA	ADIERAZLEAK, BANAKATUTA	BETETZE-MAILA	OHARRAK
Hiri hezitzailearen proiektua garatzen jarraitzea eta txikitatik eskolan eta familian funtsezko balioak lantzea; besteak beste, gizalegea, elkartasuna eta errespetua.	KULTURA, HEZKUNTZA ETA KIROLO SAILA	Hiri hezitzailearen proiektutik garatu diren ekintzak	Handia	2015/2016 ikasturtean, «Vitoria-Gasteiz, hiri hezitzailea» proiektua konfiguratu zen. 180 jarduera edo programa bildu zituen, 12 gai espezifikotan banatuta. Jarduera edo programa horiek ia osorik gauzatu dira (% 5 baino gutxiago utzi dira gauzatu gabe).
		Adinekoen partaidetza izan duten Hiri Hezitzailearen proiektuko ekintzak	Handia	Adineko askok hartu dute parte bi ekintza eskusibotan. Era berean, belaunaldien arteko tailerren kopurua 5etik 8ra igo da. Partaide kopurua % 20,58 handitu da.
Berdintasun Planean bildutako ekintzak garatzea.	ALKATETZAREN ETA ERAKUNDE HARREMANEN SAILA	Berdintasun Planetik garatu diren ekintzak	Handia	Ekintzen % 68 gauzatu dira, edo gauzatze-bidean daude.
		Berdintasun Planetik garatu diren eta adinekoen partaidetza izan duten ekintzak.	Handia	Lau ekintza gauzatu dira adinekoentzako zerbitzuan, emakumeak ahalduentzeko, haien balioak aldatzeko, eta erantzukidetasunean oinarritutako gizarte-antolaketa sustatzeko.
Gazte Planean jasotako ekintzak garatzea.	ALKATETZAREN ETA ERAKUNDE HARREMANEN SAILA	Gazte Planetik garatutako ekintzak	Handia	Planeko ekintzen % 89 gauzatu dira.
		Gazte Planetik garatu diren eta adinekoen partaidetza izan duten ekintzak	Ez da gauzatu	Ez da egin ekinzarik adinekoekin.
Haur eta Nerabeentzako Planean bildutako ekintzak garatzea.	GIZARTE POLITIKEN ETA OSASUN PUBLIKOAREN SAILA	Haur eta Nerabeentzako Planetik garatutako ekintzak	Ezin da baloratu	Ez dago daturik.
		Haur eta Nerabeentzako Planetik garatu diren eta adinekoen partaidetza izan duten ekintzak	Ertaina	Planak belaunaldien arteko bi ekintza ditu.
Adinekoen tratu egokia eta irudi positiboa sustatzea,	GIZARTE POLITIKEN ETA OSASUN	Adinekoen irudi positiboa	Ertaina - Handia	2015ean, kanpaina bat egin zen adinekoekiko pertzepzio

sentsibilizazio-kanpaina bat eginda eta jardunbide egokien gida bat prestatuta.	PUBLIKOAREN SAILA	sustatzen duten ekintzen kopurua.		soziala hobetzeko.
		Jardunbide egokiei buruz prestatutako gida kopurua.	Ez da gauzatu	Ez da gauzatu.
Tratu desagokia edo tratu txarrak hautemateko, saihesteko eta desagerrarazteko plan bat martxan jartzea.	GIZARTE POLITIKEN ETA OSASUN PUBLIKOAREN SAILA	Tratu desagokia edo tratu txarrak hautemateko, saihesteko eta desagerrarazteko plan bat izatea.	Handia	2013an prestatu zen plana; tresnak eskaini ziren, eta 170 profesional prestatu ziren. 2016an, 37 pertsona artatu ziren plan horrekina.
Belaunaldien arteko programak ugaritzea.	GIZARTE POLITIKEN ETA OSASUN PUBLIKOAREN SAILA	Belaunaldien arteko programak ugaritzea.	Handia	Setik 8ra igo da belaunaldien arteko tailerren kopurua.
		Belaunaldien arteko programetako partaide kopurua handitzea.	Handia	% 20,58 handitu da partaideen kopurua.
Jarduera komunitarioak eta ate irekien jardunaldiak areagotzea.	GIZARTE POLITIKEN ETA OSASUN PUBLIKOAREN SAILA	Jarduera komunitarioen eta partaideen kopurua handitzea.	Handia	Nahiz eta adinekoren zentro soziokulturaletako jarduera komunitarioen kopurua % 30 txikitu den, gora egin du beste 59 jarduerarekin batera gauzatutako ekintzen kopuruak.
		Ate irekien jardunaldien kopurua handitzea.	Txikia	Ez da egin ate irekien jardunaldirik, baina apur bat gora egin du adinekoren zentro soziokulturelei eta beste gizarte-baliabide batzuei buruzko informazio-bileren kopuruak (% 5,59).
Jendaurrean lan egiten duten gizarte-zerbitzuetako, osasun-zerbitzuetako, garraiobideetako eta abarretako profesionalak tratu ona ematearekiko sentsibilizatzeari, prestakuntzaren bidez.	GIZARTE POLITIKEN ETA OSASUN PUBLIKOAREN SAILA	Gai horiek aztergai izan dituzten prestakuntza-jardueren kopurua.	Handia	Prestakuntza-ekintza bat egin zen adinekoei tratu ona ematearen inguruan, 170 profesionalentzat, eta bi prestakuntza-ekintza, berriz, arreta pertsonarengan jartzen duen ereduari buruz, 265 profesionalentzat.
Auzotarren arteko harremanak sustatzea, komunitateak adinekoei laguntzeko bitarteko gisa.	GIZARTE POLITIKEN ETA OSASUN PUBLIKOAREN SAILA	Gauzatutako jarduera kopurua.	Handia	2015ean, kanpaina bat jarri zen martxan bakarrik dauden adinekoei laguntzeko, eta, 2016tik, esperientzia pilotu bati eman zaio hasiera isolatze soziala hautemateko eta laguntza eskaintzeko.
Baliabide psikosozialen eta atsedena emateko	GIZARTE POLITIKEN ETA OSASUN	Artatutako familia kopurua	Handia	Gora egin du artatutako familia kopuruak (% 22,81).

baliabideen bidez familia zaintzaileei laguntzea eta haien lana aitortzea.	PUBLIKOAREN SAILA	handitzea.		
		Emandako batez besteko zerbitzu kopurua.	Handia	Baliabide desberdinen batezbestekoek jardueramaila handia erakusten dute, eta goranzko joera izan du 2013-2016 aldian.
		Gauzatutako jarduera kopurua.	Ertaina - Handia	Sei ekintza egin dira, eta haietako bat 2016an txertatu da.
Etxebizitzak eta espazio publikoa auzotarren arteko interakzioa ahalbidetzeko moduan eraikitzea.	HIRIGINTZA SAILA	Hiri Antolamendurako Plan Orokorreko ekintzen betetze-maila.	Ezin da baloratu	Une honetan, Plana gauzatzen ari da.

Iturria: geuk egina.

Emaitza-adierazleak

Errespetuari eta gizarteratzeari dagokionez, talde fokalek hauek nabarmendu zituzten alderdi positibo gisa: gizarteak kontuan hartzea adinekoak eta haien beharrak; eta auzotarren sarea garrantzitsua izatea laguntzeko, zaintzeko eta sozializatzeko baliabideen iturri gisa. Alderdi positibo horiek 2011ko diagnostikotik mantentzen dira.

Alderdi horiez gain, talde batzuetan beste alderdi positibo batzuk ere aipatu ziren hirian adinekoak errespetatzeari eta haren parte gisa sentiarazteari buruz. Adibidez, Udalak jarduera eta ekintza ugari antolatzen ditu (Udalak, beraz, arreta handiagoa eskaintzen dio talde horri), eta garraiobide publikoetan esertzen utzi ohi zaie.

Bestalde, lau alderdi negatibo aipatu ziren diagnostikoan, eta orain ere nabarmendu dira ebaluazio-talde fokaletan:

- Gizarteak oro har balio etikoak galtzea; besteak beste, enpatia, gizatasuna eta errespetua.
- Jende askok haurrak balira bezala edo maternalismoz/paternalismoz tratatzea adinekoak.
- Zahartzaroaren irudi sozialak konnotazio negatibo handiak izatea.
- Gaur egungo gizartean bizitza komunitariorik ez egotea, bereziki bizilagunen artean.

Talde fokaletan ere aipatu zen, nahiz eta adineko autonomoak gero eta integratuago egon Gasteizko bizitzan, ez dela gauza bera gertatzen mendeko adinekoekin, haiek gizarteratzeko baliabideak mugatzat ikusten baitira.

Gainera, beste alderdi negatibo batzuk ere agertu ziren; besteak beste, immigrazioaren inguruko pertzepzio negatiboak.

Talde fokalak: alderdi positiboen eta negatiboen kopurua (2011-2017)

	Alderdi positiboak		Alderdi negatiboak	
	Kop.	%	Kop.	%
2011ko diagnostikoa	11	47,83	12	52,17
2017ko ebaluazioa	8	30,77	18	69,23

Iturria: geuk egina.

Hala ere, talde horietan atera zen ondorio orokorra izan zen, bai errespetuaren eremuan, bai gizarteratzearen eremuan, hobekuntzak izan zirela azken urteetan Vitoria-Gasteizen.

GIZARTE-PARTAIDETZA

Gizarte-partaidetza eta gizarte-laguntza oso lotuta daude osasun onarekin eta ongizatearekin bizi-ziklo osoan zehar. Jarduera komunitarioetan parte hartuz (aisiakoak, sozialak, kulturalak, espiritualak eta familiakoak), adinekoek beren gaitasunak erabiltzen jarrai dezakete, errespetua eta estimua jaso, laguntza- eta zaintza-harremanak mantendu edo ezarri; horrela, gizarteratu egiten dira, eta informatuta egon daitezke (OME, 2007: 41).

Eremu hau ebaluatzeko, oinarrizko adierazle hau ezartzen du OMEk:

- Jarduera soziokulturaletan parte hartzea: bertako zentro eta jarduera kulturaletan erregistratutakoean artean izan diren adinekoen proportzioa.

Eremu honi dagokionez, Vitoria-Gasteizko Udalak gizarte-etxeei, kirol-instalazioei eta adinekoen zentro soziokulturaleri buruzko informazioa du.

Udalak lortutako datuen bidez, gizarte-etxeetako jarduerari buruzko adierazle esanguratsuek 2011-2015 aldian izan duten bilakaera ikusten da. Eraitzen arabera, asko erabiltzen dira gizarte-etxeak, eta gero eta jarduera gehiago antolatzen dira. Hori gorabehera, urte horietan bilakaera irregularra izan du plazen eta saioen kopuruak, baina, bi kasuetan, 2015eko zifrak (100.677 plaza eta 82.914 saio) txikiagoak dira 2011koak baino (101.249 plaza eta 85.727 saio). Hala ere, gero eta jende gehiagok eman du izena urte horietan, eta inoiz ez dira bete plaza guztiak. Era berean, pertsona kopurua handitu egin da, eta, batez beste, 2,7 eta 2,8 jardueratan eman du izena pertsona bakoitzak.

Erabiltzaileen profilari dagokionez, gehienak 14 eta 59 urte artean daude. 59 urtetik gorakoek portzentajea mantendu egin da 2011tik, eta % 18 eta % 17,3 artean dago; hau da, hamar adinekotik ia bik erabiltzen dituzte espazio horiek.

Gizarte-etxeetako jarduerak. Adierazleen laburpena

	2011/12	2012/13	2013/14	2014/15	2015/16
Jarduerak	509	593	729	758	764
Sortutako taldeak	5.453	5.552	5.937	6.182	5.579
Plazak	101.24 9	99.17 9	104.64 5	109.92 9	100.67 7
Saioak	85.727	74.23 9	78.572	76.792	82.914
Izena eman dutenen kopurua	87.509	83.85 1	85.837	86.986	90.437
Pertsonak	31.017	29.59 6	31.232	30.975	32.942
14 urtekoak (%)	21,6	24,5	24,0	26,1	-
59 urtetik gorakoak (%)	18,0	17,4	17,3	17,5	-
Emakumeak (%)	68,5	71,4	68,1	68,4	-
Jarduera kopurua pertsonako	2,8	2,8	2,7	2,8	2,7
Plazak pertsonako	3,3	3,4	3,4	3,5	3,1
Plazak taldeko	18,6	17,9	17,6	17,8	18,0


Iturria: Vitoria-Gasteizko Udala. Azterlanen Unitatea.

Horretaz gain, herritar askok erabiltzen dituzte kirol-instalazioak ere, eta gero eta gehiago, urteek aurrera egin ahala. Era horretako instalazioak batez ere 5 eta 15 urte artekoek eta 45 eta 44 urte artekoek erabiltzen dituzte. Hala ere, adinekoek ere erabiltzen dituzte, eta gero eta gehiago; hala, 2011n, 64 urtetik gorako 8.422 adinekok erabili zituzten, eta 2016an, berriz, 10.353 adinekok. Adinekoen kopurua apur bat handitu da azken urteotan, baina abonatuena laurden bat baino gutxiago izan dira beti (hots, % 18,9 eta % 20,6 artean).

Udaleko kirol-instalazioetara abonatuakoen kopurua, sexuaren eta adin taldearen arabera

	2011	2012	2013	2014	2015	2016
Sexua						
Gizonak	38.839	39.652	39.836	40.528	42.349	41.652
Emakumeak	42.831	43.131	43.262	43.847	45.596	45.021
Ez dago daturik	2.101	2.134	2.194	2.303	2.420	5.881
Adin taldeak						
0-4	3.090	3.144	3.415	3.931	4.249	4.427
5-15	15.444	16.147	16.154	16.380	17.149	17.678
16-17	2.628	2.768	2.883	2.902	3.078	3.290
18-24	6.402	6.285	6.127	6.130	6.416	6.527
25-34	10.950	10.687	10.159	9.636	9.610	9.250
35-44	16.745	16.896	16.899	16.987	17.724	17.811
45-54	12.632	13.012	13.270	13.696	14.230	14.893
55-64	7.398	7.421	7.488	7.661	8.041	8.325
65 eta gehiago	8.422	8.557	8.897	9.355	9.868	10.353
GUZTIRA	83.771	84.917	85.292	86.678	90.365	92.554

Abonatutako adinekoen portzentajea, adin talde osoari dagokionez



Vitoria-Gasteizek zahartze aktiboa sustatzeko dituen baliabide garrantzitsuenetako bat adinekoen zentro soziokulturalak dira. Adinekoen zentro soziokulturalak elkartzeko, harremanetan jartzeko eta parte hartzeko tokiak dira, eta jarduera ugari eskaintzen dituzte: ikastaroak, tailerrak, hitzaldiak, haur eta gazteentzako jarduerak, ikuskizunak eta ospakizunak. Adinekoen 15 zentro soziokultural ditu hiriak, hainbat auzotan banatuta, eta haien kudeaketa partaidetza aktiboaren adibide da. Adinekoek, musu-truk eta konpromiso osoz, beren zentroko hileko programazioa erabakitzen eta antolatzen dute, jarduera-batzordeen bidez eta teknikariek lagunduta.

2013an, 2014an, 2015ean eta 2017an aztertu zen adinekoen zentro soziokulturalekiko gogobetetasuna. Lehenengo urtean (2013), balorazio orokorrari buruzko azterlan bat egin zen, eta, bertan, zentro bakoitzari zegokion gogobetetasuna adierazi zen. Hurrengo urteetan, balorazio orokorrak baino ez ziren egin, zentroen arteko bereizketarik egin gabe.

Egindako lau azterlanetan, baliabide horiek erabiltzen dituzten adinekoek erantzun zieten inkestei. 2013an, 821 pertsonari egin zitzairen inkesta, eta 2017an, berriz, 268ri. Hortaz, beherakada handia izan da lehenengo urteko datuekin alderatuta, nahiz eta 2017an nolabaiteko gorakada bat izan zen 2014ko eta 2015eko datuekin alderatuta.

Urte horietan guztietan, alderdi hauekiko gogobetetasuna aztertu zen: alderdi orokorrak, zerbitzuak, arreta profesionala eta espazio fisikoa. Kasu guztietan, emaitzak nahikoa positiboak dira, eta, ia urte guztietan, batez besteko balorazioa (0tik 10era arteko eskalan) 8 eta 9 artekoa da alderdi guztietan. Dirudienez, gogobetetasun orokorra gorantz doan, nahiz eta kopuruak oso handiak diren urte guztietan. Itxuraz, arreta profesionalak jaso zuen balorazio handiena (2017an, 9,06). Urte batetik bestera izandako aldaketak oso txikiak dira, eta balorazioak oso positiboak izaten jarraitzen du 2013tik.

Adinekoen zentro soziokulturalekiko gogobetetasunaren batez besteko balorazioak

	Alderdi orokorrak	Zerbitzuak	Arreta profesionala	Espazio fisikoa	Gogobetetasun orokorra
2013	8,01	8,55	8,94	7,94	8,80
2014	8,29	8,83	9,13	8,16	8,89
2015	8,23	8,82	9,07	8,13	8,86
2017	8,32	8,64	9,06	8,10	8,86

Iturria: Vitoria-Gasteizko Udala. Gizarte Politiken eta Osasun Publikoaren Saila.

Halaber kontuan izan behar da, gizarte-partaidetza sustatzeko, Vitoria-Gasteizko Udalak plan espezifiko hauek jarri dituela martxan:

- Kulturaren Plan Estrategikoa (prestatzen)
- Merkataritzaren eta Ostalaritzaren Plan Estrategikoa
- Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plana
- Euskararen Erabilera Sustatzeko Plan Orokorra


Produktu-adierazleak

Eremu honetan, bost ekintza proposatu ziren, zazpi adierazleren bidez neurtzeko. Zazpi adierazle horietatik, bi ezin izan dira baloratu, ez dagoelako informaziorik. Ezarritako gainerako adierazleetatik, % 60k betetze-maila ertaina izan dute; % 20k, betetze-maila handia; eta beste hainbeste ez dira gauzatu.

Betetze-maila handiena duten ekintzek adinekoen behar eta eskaeretara egokitu nahi dute adinekoen zentro soziokulturaletako ikastaro, tailer eta zerbitzuen programazioa, eta bereziki emaitza onak izan dira jarduera eta baliabideen kopurua handitzeari dagokionez. Ekintza horiek hobekuntza nabarmena dakarte adinekoentzat, parte hartzeko aukera gehiago eskaintzen baitizkiete, baita haien nahi eta beharretara hobeto egokitzen diren jarduerak aurkeztu ere.

Aldiz, ekintza bat geratu da gauzatu gabe; hain zuzen ere, eskaria aztertuko duen eta udalerriko jarduera soziokulturalen eta kirol-jardueren eskaintza adinekoentzako erakundeen artean koordinatuko duen tresna bat proposatzekoa. Koordinazioan oinarritutako ekintza horrek agerian jartzen du beharrezkoa dela Udalak zenbait alderdi hobetzea; besteak beste, zeharkakotasuna eta sareko lana.

Gizarte-partaidetza: betetze-maila



Iturria: geuk egina.

Gizarte-partaidetza: betetze-maila, adierazleen arabera

EKINTZAK	ADMINISTRAZIOA / ATALA / SAILA	ADIERAZLEAK, BANAKATUTA	BETETZE-MAILA	OHARRAK
Eskaria aztertuko duen eta udalerriko jarduera soziokulturalen eta kirol-jardueren eskaintza adinekoentzako erakundeen artean koordinatuko duen tresna bat proposatzea.	GIZARTE POLITIKEN ETA OSASUN PUBLIKOAREN SAILA ETA PARTAIDETZAREN ETA GIZARTE ETXEEN SAILA	Plangintza- eta koordinazio-tresna hori izateko gauzatutako ekintzak.	Ez da gauzatu	Ez da gauzatu.
Zahartze aktiboaren esparruan, 60tik gorako pertsonen jakinaraztea zer aukera dituzten aisiaz gozatzeko.	GIZARTE POLITIKEN ETA OSASUN PUBLIKOAREN SAILA ETA PARTAIDETZAREN ETA GIZARTE ETXEEN SAILA	Gauzatutako jarduera kopurua.	Ertaina - Handia	2015ean, adinekoen zentro soziokulturalak aurkezteko liburuxka prestatu zen.
Adinekoen zentro soziokulturaletako ikastaro, tailer eta zerbitzuen programazioa adinekoen behar eta eskaeretara egokitzea.	GIZARTE POLITIKEN ETA OSASUN PUBLIKOAREN SAILA	Gauzatutako ekintzak.	Ertaina - Handia	Beste zentro bat sortzea eta jarduerak ugaritzea.
		Jarduera kopurua handitzea eta zerbitzuen estaldura areagotzea.	Handia	% 10,92 handitu da jarduera kopurua, eta % 12,16, berriz, plaza kopurua. Gainera, beste zentro bat ere sortu da. Beste baliabide batzuk ere areagotu dira; hain zuzen ere, ileapaindegia, podologia, osasun-parkeak eta

				kafetegia.
Adinekoen zentro soziokulturaletako espazioen erabilgarritasuna hobetzea eta beste batzuk sortzea, gaur egungo bitan dauden arazoak saihesteko.	GIZARTE POLITIKEN ETA OSASUN PUBLIKOAREN SAILA	Adinekoen zentro soziokulturaleta rako hobekuntza-planeko ekintzak garatzen jarraitzea.	Ertaina	Ez da hartu neurririk Herrandarren kaleko eta Judizmendiko zentrozen egoera hobetzeko, baina beste zentro bat sortu da.
Mendeko pertsonentzako aisiako jardueren eskaintza handitzea. Etxe barruan nahiz etxetik kanpo egin daitezkeen mendeko pertsonentzako jarduerak azaltzen dituzten gidak diseinatzea.	GOFE	Jarduera kopurua handitzea.	Ezin da baloratu	Ez dago daturik.
		Jarduerak azaltzen dituen gida bat egotea.	Ezin da baloratu	Ez dago daturik.

Iturria: geuk egina.

Emaita-adierazleak

Gizarte-partaidetzaren eremuan, alderdi positiboen artean gehienetan aipatu dena adinekoen zentro soziokulturalena da. Era horretako zentro ugari daude hiri osoan barrena. Diotenez, zentro horietan harreman ona dago jendearen artean eta, funtsean, harremanak mantentzeko balio dute. Gainera, adinekoen esku dauden hainbat batzordek kudeatzen dituzte zentro horiek, eta batzorde horiek arduratzen dira jarduerak planifikatzeaz; alderdi horrek ere oso balorazio ona jaso du.

Eremu honetan, alderdi positibo hauek nabarmendu ziren talde fokal guztietan, bai diagnostikoa egiterakoan, bai ebaluazioa egiterakoan:

- Pertsonak pozik egotea aisiaz gozatzeko moduarekin.
- Aisiarako baliabide ugari egotea.
- Gizarte-etxeak eta zentro soziokulturalak ondo baloratuta egotea.
- Aisiako jardueren eskaintza zabala eta erakargarria egotea.

Alderdi negatiboen artean, nabarmentzekoa da adineko batzuek ez dutela inplikaziorik batzordeetan; zentro batean baino gehiagotan gertatzen da hori. Hortaz, beti pertsona berberen esku dago guztia. Besteek ia ez dute parte hartzen, eta jardueretan parte hartzeko soilik erabili ohi dituzte zentroak. Beste alderdi negatibo bat, behin baino gehiagotan aipatua, zenbait jardueratan plaza gutxi daudela da.

Hortaz, zentro horiek balorazio positiboa dute oro har, eta diagnostikoa egin zenetik ia ez direla aldatu sentitzen da.

Talde fokalak: alderdi positiboen eta negatiboen kopurua (2011-2017)

	Alderdi positiboak		Alderdi negatiboak	
	Kop.	%	Kop.	%
2011ko diagnostikoa	11	55	9	45
2017ko ebaluazioa	6	54,55	5	45,45

Iturria: geuk egina.

Nabarmendu behar da parte-hartzaile guztiek aisiaz gozatzeari buruz esan zutenak Udalaren adinekoentzako zentro soziokulturalekin erlazionatutako elementuetan jarri zuela arreta. Horrek esan nahi du baliabide horiek oso garrantzitsuak direla Vitoria-Gasteizko adinekoen bizitzan; batez ere, aisialdiaz gozatzeari dagokionez.

Funtsezko pertsonen egindako elkarrizketetan adierazi zen bi alderdi hobetu behar zirela eremu honetan: batetik, zahartze aktiboaren ikuspegia zabaltzea; eta, bestetik, laguntza-zentroetan parte hartzea (besteak beste, eguneko zentroetan edo egoitza-zentroetan). Iritzi bera adierazi dute talde fokaletan, mendeko pertsonak gizarteratzearen testuinguruan. Hortaz, garbi dago aurrera egin behar dela arlo horretan.

HERRI-PARTAIDETZA ETA ENPLEGUA

Adinekoek etengabe laguntzen dute beren komunitateetan, jarduera ekonomikoan erretiroa hartu ondoren (hau da, lan-merkatutik irten ondoren). Adinarekin lagunkoia den komunitateak aukerak eskaintzen ditu adinekoek komunitateei laguntzen jarrai dezaten, lan ordainduaren edo borondatezko lanaren bidez (haiek zer nahi duten), eta prozesu politikoan parte har dezaten (OME, 2007:52).

Eremu hau ebaluatzeko, oinarrizko adierazle hauek ezartzen ditu OMEk:

- Borondatezko jardueretan parte hartzea: boluntarioen tokiko erregistroetan dauden adinekoen proportzioa.
- Erabakiak hartzeko tokiko prozesuetan parte hartzea: boto-eskubidea duten eta tokiko azken hauteskundeetan edo azken lege-ekimenetan botoa eman zuten adinekoen proportzioa.
- Lan ordaindua: gaur egun langabezian dauden adinekoen proportzioa.

Vitoria-Gasteizek hogeita hamar bat boluntario-elkarte ditu, hainbat gairen ingurukoak: elkartasuna, ingurumena eta elkarlana. Baina ez du daturik boluntario kopuruari buruz.

Erabakiak hartzeko udal prozesuetan parte hartzeari dagokionez, Vitoria-Gasteizko Udalak hainbat partaidetza-organo jarri ditu martxan (elkarguneak, auzoguneak eta gizarte-kontseilua) Herri Partaidetzako Planaren barruan. Partaidetza-organoek herritarren eta Udalaren arteko harremana eta komunikazioa ahalbidetzen dute. Eztabaidarako guneak dira, eta, bertan, udalerriko pertsona guztiek har dezakete parte, nola banaka hala taldeen ordezkari gisa. Gune horietan, elkarriketa zuzena ezartzen da herritarren, udal teknikarien eta ordezkari politikoaren artean Udalaren eskumenekoak diren gaietan hobekuntzak proposatzeko. Haren helburua da hiriaren errealitatea hobeto ezagutzen laguntzea eta erabakiak hartzen parte hartzea.

Elkarguneetan, iritziak adieraz daitezke, eta beste herritarrekin, ordezkari politikoekin eta udal teknikariek hainbat gai eztabaidatzea. Une honetan, 12 elkargune daude, bat intereseko gai bakoitzeko. Elkargune horien artean, adinekoen espezifiko bat dago.

Auzoguneetan, iritziak adieraz daitezke, eta auzoen inguruko hobekuntzak proposatzen dira. Besteak beste, trafikoari, garbitasunari eta hiriko espazioei buruz hitz egiten dute herritarrek, udal teknikariek eta ordezkari politikoek.

Gizarte Kontseiluak udalerriko partaidetza-organo guztiak ordezkatzeko ditu. Bertan, udalerriko gai garrantzitsuak eztabaidatzen eta proposatzen dira, eta haiei buruzko txostenak egiten dira, baita udal plan estrategikoei buruzkoak ere.

Partaidetza-organoetan ez ezik, herritarrek udal tramiteen bidez ere har dezakete parte (udal jardunei buruzko informazioa eta azalpenak eskatzea, herri-kontsulta egiteko eskatzea, entzunaldi publikoa egiteko eskatzea, herri-proposamenak aurkeztea, etab.), herritar gisa dituzten eskubideez baliatuz, iritziak eta esperientziak trukatzeko (herritarren postontzia, Interneteko foroak).

Herritarren Partaidetzako Planaz gain, jardun-arlo honetan eragina duten eta harekin erlazionatuta dauden beste plan batzuk ere jarri ditu martxan Udalak. Hauek dira planak:


- Erosketa eta Kontratazio Sozialki Arduratsu eta Jasangarrirako Plana (2017)
- Hezkuntza Zerbitzuaren Plan Estrategikoa
- Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plana

Produktu-adierazleak

Lagunkoitasun Planean, lau ekintza bildu ziren herri-partaidetzaren eremuan, baina bat ere ez enplegua sustatzeko. Lau ekintza horiek zazpi ezarpen-adierazletan banatzen ziren. Eredu horretan, adierazle guztiek dituzte emaitza onak: % 71,4k ezarpen-maila handia izan dute, eta % 28,6k, berriz, ezarpen-maila ertaina. Hemen sartzen diren ekintza guztiak ezarri dira (% 100), eta gehienak ia guztiz.

«Herritarrek parte hartzeko udal eredua berrikusteko ekintzak garatzen jarraitzea» ekintzaren kasuan, Herritarren Partaidetzarako Udal Plana prestatzea lortu zen, partaidetza-prozesuaren bidez, politikariekin, udal teknikariekin eta elkarteekin batera. Ekintza horren barruan jarduera ugari egin ziren, eta partaidetza aktiboko lan osatua eta askotarikoa egin zen.

Aldiz, Adinekoen Kontseilu Sektorialaren partaidetza-agenda lantzen jarraitzea izan zen gutxien garatu zen jarduera, adinekoek parte hartzeko beste organo bat sortzera bideratu baitzen ahalegina. Horrela, «elkargunea» sortu da, eta Adinekoen Kontseilu Sektorialaren lana ordeztu du.



Iturria: geuk egina.

Herri-partaidetza eta enplegua: betetze-maila, adierazlearen arabera.

EKINTZAK	ADMINISTRAZIOA / ATALA / SAILA	ADIERAZLEAK, BANAKATUTA	BETETZE-MAILA	OHARRAK
Herritarrek parte hartzeko udal eredua berrikusteko ekintzak garatzen jarraitzea.	PARTAIDETZAREN ETA GIZARTE ETXEEN SAILA	Eredua berrikusteko gauzatutako jarduera kopurua.	Handia	Herritarren Partaidetzarako Udal Plana prestatu zen, partaidetza-prozesu baten bidez, zinegotziekin, udal teknikariekin eta elkarteekin batera. Plana prestatzeko, jarduera ugari gauzatu ziren.
		Jardueren emaitzak.	Handia	Emaitza nagusia izan zen Herritarren Partaidetzarako Udal Plana prestatzea, partaidetza-prozesu plural baten bidez.
Adinekoen zentro soziokulturaletako jarduerak batzordeak bultzatzea.	GIZARTE POLITIKEN ETA OSASUN PUBLIKOAREN SAILA	Partaide kopurua eta eratutako batzorde kopurua handitzea.	Ertaina - Handia	% 11,90 handitu da batzorde kopurua, eta % 13,16, berriz, partaide kopurua.
		Gauzatutako jarduera kopurua handitzea.	Handia	% 17,93 handitu da gauzatutako jardueren kopurua.
Adinekoen Kontseilu Sektorialaren partaidetza-agenda lantzen jarraitzea.	PARTAIDETZAREN ETA GIZARTE ETXEEN SAILA ETA GIZARTE POLITIKEN ETA OSASUN PUBLIKOAREN SAILA	Bilera kopurua	Handia	Elkargune adinekoentzako partaidetza-organo berria da, eta urtean hiru bilera egin ditu azken urteotan.
		Aztertutako gaiak	Ertaina	Elkarguneak duela gutxi sortu direnez, aztertutako gai nagusiak elkarguneen antolaketa eta funtzionamenduekin lotuta daude.
Adinekoek jakinaraztea zer erakundek behar dituzten boluntarioak.	PARTAIDETZAREN ETA GIZARTE ETXEEN SAILA	Gai hau aztertzeko gauzatutako ekintzak.	Handia	Online plataforma bat sortzea, eta, bertan, elkarte bakoitzaren boluntario-beharrak ezagutaraztea, baita Batekin elkarteak bi hedapen-saio egin izana ere.

Iturria: geuk egina.

Emaiza-adierazleak

Hala ere, talde horietan parte hartu zuten pertsonak adierazi zuten ez zutela askorik parte hartzen Udalak eskura jarri dizkien organoetan eta boluntario-elkarte edo -erakundeetan. Pertsona horietako batzuek soilik hartzen zuten parte (edo noizbait hartu zuten parte) adinekoen zentro soziokulturalen esparruan sortutako batzordeetan.

Hortaz, hiriak eskaintzen dituen partaidetza moduen inguruan zuten pertzepzioa mugatua zen, oro har ez baitzituzten ezagutzen, bereziki elkarguneak. Hortaz, beharrezkoa da erakunde horiek gehiago ezagutaraztea.

Enpleguari dagokionez, taldeetan gazteen enplegu-beharretara bideratu zen diskurtsoa, baina ez 65 urtetik gorakoen lan-beharretara. Garbi ikusi zen parte-hartzaileek ez zituztela ezagutzen erretiroa hartu ondoren dauden lan-aukerak, eta interes-falta zutela gai horretan.

Talde fokalak: alderdi positiboen eta negatiboen kopurua (2011-2017)

	Alderdi positiboak		Alderdi negatiboak	
	Kop.	%	Kop.	%
2011ko diagnostikoa	10	52,63	9	47,37
2017ko ebaluazioa	5	35,71	9	64,29

Iturria: geuk egina.

KOMUNIKAZIOA ETA INFORMAZIOA

Zahartze aktiborako funtsezkoa da gertakariekin eta pertsonekin konektatuta egotea eta bizitza administratzeko eta norberaren beharrei erantzuteko moduari buruzko informazio egokia eta praktikoa jasotzea. Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak, etengabe aldatuz doazenez, oso tresna erabilgarriak dira, baina baita gizarte-bazterkeriako tresnak ere. Komunikazio-aukeren aniztasuna eta dagoen informazio kopurua alde batera utzita, bizkor lortu behar da informazio garrantzitsua hainbat gaitasun eta baliabide dituzten adinekoentzat (OME, 2007).

Eremu hau ebaluatzeko, oinarrizko adierazle hau ezartzen du OMEk:

- Informazioa eskuragarri egotea: osasun-arazoei buruzko informazioa emango duten eta zerbitzu desberdinetara (bereziki telefonoz) bideratuko duten tokiko iturriak izatea.

Ildo horretan, Vitoria-Gasteizko Udalak 2011tik 2015era bitartean Vitoria-Gasteizko herritarrentzako arreta-bulegoetan, sareko plataforman eta 010 telefono-zenbakian jasotako kontsulten bilakaerari buruzko informazioa du.

Nahiz eta baliabide horietako bakoitzak bere bilakaera izan duen, guztiek emaitza onak erakusten dituzte, kontsulta kopuru osoa handitu egin baita 2011tik 2015era. Baliabide horietako bakoitzari dagokionez, webguneak egunean zerbitzu gutxiago eskaini ditu, eta kontsulta gutxiagori erantzun; aldiz, telefonoz eta bulegoan bertan jasotako kontsulta kopuruak apur bat behera egin zuen 2011tik 2014ra, eta, gero, gora berriro 2015ean. Guztira, urte hartan, 1.334.984 kontsulta egin ziren.

Vitoria-Gasteizko herritarrentzako arreta-bulegoetan, webgunean eta 010 telefono-zenbakian jasotako kontsultak

KANALA	2011	2012	2013	2014	2015
WEBGUNEAK					
ZERBITZUAK	393.301	412.970	471.799	538.048	563.601
Webguneko kontsultak, eguneko	1.078	1.131	1.293	1.474	1.544
HAB					
KONTSULTAK	556.333	516.238	437.214	606.680	606.150
HABeko kontsultak, eguneko	1.524	1.414	1.198	1.662	1.661
010					
KONTSULTAK	181.603	168.007	143.836	152.448	162.217
010 telefono-zenbakiko kontsultak, eguneko	498	460	394	418	444
KONTSULTAK, GUZTIRA	1.112.812	1.061.760	1.014.732	1.319.034	1.334.984
Kontsultak, eguneko	3.049	2.909	2.780	3.614	3.657


Iturria: Vitoria-Gasteizko Udala. Geuk egina, Herritarrentzako Arretarako Udal Artxiboan oinarrituta.

Produktu-adierazleak

Komunikazioa eta informazioa hobetzera bideratutako zazpi ekintzak 11 adierazleren bidez baloratzen dira. Haietatik, erdiak baino gehiagok (% 54,5) ezarpen-maila handia izan dute, eta % 18,2k, berriz, ezarpen-maila ertaina. Aldiz, % 27,3 ez dira gauzatu, edo gutxi gauzatu dira.

Esan behar da betetze-maila handiena duten ekintzak euskarri informatikoen eta Wi-Fi bidez adinekoen zentro soziokulturaletan informazioa ematearekin erlazionatuta daude. Aldiz, gauzatu gabeko ekintzak irtenbideak bilatu nahi lizkieke herri-administrazioek (Eusko Jaurlaritzaren eta Aldundiaren menpekoek) erabiltzen dituzten erantzungailu automatikoei.

Komunikazioa eta informazioa: betetze-maila



Iturria: geuk egina.

Komunikazioa eta informazioa: betetze-maila, adierazlearen arabera

EKINTZAK	ADMINISTRAZIOA / ATALA / SAILA	ADIERAZLEAK, BANAKATUTA	BETETZE-MAILA	OHARRAK
Udal zerbitzu eta ekipamenduen informazio grafikoko eta papereko informazioko euskarriak hobetzea.	UDALA	Gauzatutako ekintza kopurua.	Txikia	Adinekoen zentro soziokulturek gai honen inguruko ekintzetan sakondu dutela baino ez dakigu.
		Adinekoen zentro soziokulturaletan informazio-ohoretako hobekuntza-ekintzak garatzen jarraitzea.	Handia	Komunikazio-planean jasotako ekintzak garatu dira; adinekoen zuzendutako agiriak berraztertu dira, eta informazio-oholen ezaugarriak hobetu dira.

Ohiko informazioaz gain, adinekoen zentro soziokulturaletako informazioguneetan gizarte-zerbitzuei eta etxebizitzaren irisgarritasuna eta bizigarritasuna hobetzeko diru-laguntzei buruzko informazioa ere ematea.	GIZARTE POLITIKEN ETA OSASUN PUBLIKOAREN SAILA	Erabilitako informazio-euskarrien kopurua. Informazio hori eskaintzen duten informazio-puntuen kopurua.	Handia	Informazio-euskarri hauek gehitu dira: erabiltzaile, senide eta profesionalei zuzendutako harrera-bileretan eta albisteen buletin digitalean beste zerbitzu batzuetako gaiak sartzea.
Administrazio-hizkera egokitzea eta malgutzatzea, ulergarria, egokia eta erabilgarria izan dadin.	UDALA	Gauzatutako ekintza kopurua eta adinekoei bidalitako jakinarazpen-ebazpen aldatuen kopurua.	Txikia	Adinekoen Atalak soilik gauzatu du berrazterketa-ekintzaren bat irakurketa errazeko metodologiaren bidez, eta adinekoen zentro soziokulturaletako dokumentuetan soilik.
Adinekoen zentro soziokulturetan sare informatikoa jartzea eta eremu honetako lan-sistemak hobetzea. Adinekoen zentro soziokulturetan Internetara konektatzeko Wi-Fi eremuak eta infoteka-eremuak sortzea, profesionalek gainbegiraturakoak.	GIZARTE POLITIKEN ETA OSASUN PUBLIKOAREN SAILA	Informazio-puntu irisgarrien kopurua.	Handia	Adinekoen zentro soziokultural bakoitzak informazio-puntu irisgarri bat du (guztira, beraz, 15).
		Profesionalek gainbegiraturako sortutako infoteken kopurua	Ertaina	Profesional batek gainbegiraturako infoteka bat sortu da Lakuako Adinekoen Zentro Soziokulturealean.
		Sortutako Wi-Fi eremuen kopurua.	Handia	Adinekoen zentro soziokultural guztiek dituzte Wi-Fi eremuak.
Adinekoentzako informatika-ikastaroetan alderdi hauek egiten erakustea: jarduera eta zerbitzuei buruzko informazioa bilatu eta eguneroko jarduerak egin (medikuarekin hitzordua jartzea, sarrerak erostea, txartelak erreserbatzea, Udalaren webgunean sartzea, ikastaro eta tailerretan izena ematea, etab.).	GIZARTE POLITIKEN ETA OSASUN PUBLIKOAREN SAILA	Eduki horiek lantzen dituzten tailerren kopurua.	Handia	Tailerren % 100ek lantzen dituzte eduki horiek. % 50 handitu da tailerren kopurua.
Udalaren webgunean adinekoen zentro soziokulturelei buruz dagoen ataleko edukiak hobetzea.	GIZARTE POLITIKEN ETA OSASUN PUBLIKOAREN SAILA	Eduki berriak areagotzea.	Handia	Nabarmen areagotu dira edukiak: ohitura osasungarriak, jardueren programazioa, aurkezpen-bideoak...
		Webgunearen bisita kopurua.	Ertaina - Handia	2016an, 22.837 aldiz bisitatu zen Udalaren webgunean adinekoen zentro soziokulturelei buruz dagoen atala.

Herri-administrazioen erantzungailu automatikoaren mekanismoari irtenbideak bilatzea.	EUSKO JAURLARITZA ALDUNDIA UDALA	Gai hau aztertzeko eta hobekuntza-proposamenak egiteko gauzatutako ekintzak.	Ez da gauzatu	Ez da gauzatu.
---	--	--	---------------	----------------

Iturria: geuk egina.

Emaita-adierazleak

Komunikazioaren eta informazioaren eremuan, talde fokalek adinekoen zentro soziokulturalak baloratu zituzten ongien. Zentro horiek informazio- eta hedapen-puntu onak dira hiriko adinekoen dauden baliabide, eskaintza eta zerbitzu guztiak ezagutarazteko. Adinekoen zentro soziokulturek informazioa zabaltzeko ezinbesteko eragile gisa duten zeregina aipatu zuten taldeek, batez ere.

Gainera, oso positibotzat jo ziren teknologia berriak erabiltzeko aukerak, baina arraila digital bat ere badagoela eztabaidatu zen, adineko askok ezin baitituzte baliabide horiek erabili informazioa jasotzeko. Ildo horretan, berriro aipatu zen garrantzitsua dela komunikazio-bide tradizionalak erabiltzen jarraitzea informazioa denengana irits dadin.

Hobetu beharreko beste alderdi bat da adinekoentzako baliabideei buruzko informazioa zabaltzekoa da; besteak beste, etxez etxeko laguntza-zerbitzua eta eguneko zentroak. Taldeetan ere aipatu zen ez direla ezagutzen adinekoentzako era horretako gizarte-zerbitzuak.

2011n eta 2017an eremu honetan aipatutako alderdi positiboen eta negatiboen kopurua alderatzean, elementu positiboek gora egin dutela hauteman da, eta elementu negatiboek, berriz, behera. Hori bat dator taldeetatik eta eragile garrantzitsuekin izandako elkarriketatik ateratakoarekin; batzuetan zein besteetan, oro har baloratu zen nabarmen hobetu dela komunikazioaren eta informazioaren eremua.

Talde fokalak: alderdi positiboen eta negatiboen kopurua (2011-2017)

	Alderdi positiboak		Alderdi negatiboak	
	Kop.	%	Kop.	%
2011ko diagnostikoa	7	41,18	10	58,82
2017ko ebaluazioa	8	66,67	4	33,33

Iturria: geuk egina.

GIZARTE- ETA OSASUN-ZERBITZUAK

Gizarte- eta osasun-zerbitzuak funtsezkoak dira komunitateko adinekoak osasuntsu egoteko eta independenteak izateko. Hauek dira gai garrantzitsuetako batzuk: zaintza jaso ahal izatea, zerbitzuaren kalitatea ona izatea, pertsonalizatua eta irisgarria izatea (OME, 2007).

Eremu hau ebaluatzeko, oinarrizko adierazle hau ezartzen du OMEk:

- Gizarte- eta osasun-zerbitzuak eskuragarri izatea: arreta edo laguntza pertsonala behar duten eta etxean bertan edo komunitatearen aldetik zerbitzu profesionalak (publikoak edo pribatuak) jasotzen dituzten adinekoen proportzioa.

Vitoria-Gasteizko Udalak adinekoentzako hainbat baliabide eta laguntza ditu alderdi ugari dagokienez haien ongizatea hobetzeko:

- Garapen pertsonala eta soziala sustatzeko baliabideak:
 - Adinekoen zentro soziokulturalak
 - Komunitateko programazioa
 - Osasun-parkeak
 - Ohitura osasuntsuak
- Adinekoak bere ingurunean bizitzen jarraitzeko baliabideak:
 - Jantokiak
 - Etxez etxeko laguntza
 - Eguneko arreta-zerbitzuak
 - Familia zaintzaileei laguntzeko programa
- Etxea ez beste ostatua emateko baliabideak:
 - Tutoretzapeko apartamentuak
 - Etxebizitza komunitarioak
- Zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoak:
 - Eguneko arreta-zerbitzuari lotutako prestazioa
 - Etxebizitza komunitarioaren zerbitzuari lotutako prestazioa

Udalak bildutako adierazleen artean, Ekintza Planean jasota dauden baliabide psikosozialetan eta familia zaintzaileek atseden hartzeko baliabideei buruzko datuak daude. Sei zerbitzu dira: laguntza eta zaintza profesionala, asteburuetako eguneko zentroa, prestakuntza-jarduerak, banako arreta psikosoziala, taldeko arreta psikosoziala eta topaketak. Hala ere, nabarmentzekoa da beste eragile batzuek ere (esaterako, Arabako Foru Aldundia eta Eusko Jaurlaritza) baliabide eta zerbitzu ugari eskaintzen dituztela, baina ez dagoela haiei buruzko informaziorik.

Udalak eskaintutako datuetan ikusten da zerbitzu horien dimentsio batzuek gora egin dutela urteetan zehar; artatutako familia kopurua, laguntza eta zaintza profesionala erabiltzen dutenen kopurua, zerbitzu honek hilean eskaintzen dituen batez besteko orduak, asteburuetan

eguneko zentroetan artatzen diren familien kopurua, banako arreta psikosoziala, egiten dituzten saioen kopurua eta topaketetan parte hartu dutenen kopurua.

Bestalde, beste dimentsio batzuek behera egin dute apur bat; esaterako, asteburuetan eguneko zentroa erabiltzen dutenen kopurua, prestakuntza-jardueretan parte hartzen dutenen kopurua eta banako arreta psikosozialeko saioen kopurua. Hori gorabehera, alderdi horiek oraindik ere emaitza onak dituzte.

Familia zaintzaileei laguntzeko programa (2013-2016)

Zerbitzua	2013	2014	2015	2016	Media
Artatutako familiak	412	404	448	506	442,5
Laguntza eta zaintza profesionala	78	95	101	82	89
Etxez etxeko arreta-zerbitzuaren orduak, guztira	12.549	14134	14.991,50	13.750	13.856
Familia bakoitzari hilean eskainitako batez besteko orduak	19,86	16,36	15,75	21,6	18,39
Asteburuetako eguneko zentroa: artatutako familiak	60	55	61	63	59,75
Erabiltzaile kopurua	2.475	1.932	1.826	2.355	2.147
Prestakuntza-jarduerak	9	9	9	10	9,25
Parte-hartzaileen kopurua	126	112	121	119	119,5
Banako arreta psikosoziala	79	77	103	118	94,25
Saio kopurua	575	584	594	596	587,25
Taldeko arreta psikosoziala (pertsonak)	23	19	16	21	19,75
Taldeko arreta psikosoziala (saioak)	37	37	37	32	35,75
Topaketak	2	2	2	2	2
Parte-hartzaileak	109	78	104	115	101,5

Iturria: Vitoria-Gasteizko Udala. Gizarte Politiken eta Osasun Publikoaren Saila.

Eremu honetan nabarmentzekoa da, gainera, haren garapenean eragin zuzena duten zenbait plan jarri direla martxan; hain zuzen ere, plan hauek: Gizarte Politiken Sailaren Plan Estrategikoa (2016-2019) eta Osasunaren Garapenerako Planak (2007-2009 eta 2013-2018). Ildo horretan, «Arabako lurralde historikoko gizarte-zerbitzuen mapa (2016-2019)» aipatu behar da, Vitoria-Gasteizko gizarte-zerbitzuen lagunkotasuna hobetzeko.

Gainera, Adinekoen Zerbitzuek adinekoentzako udal zerbitzuei buruzko gogobetetasun-azterlan ugari dituzte; besteak beste, eguneko arreta-zerbitzuen eta tutoretzapeko apartamentuen gogobetetasuna ebaluatzeko azterlanak.

Eguneko arreta-zerbitzuei dagokienez, hainbat gogobetetasun-azterlan egin ziren 2013an, 2014an, 2015ean eta 2016an. Emaitza orokorren arabera, balorazioa oso positiboa da, ebaluatutako alderdi gehienek batez besteko puntuazioa lortu baita; hain zuzen ere, 8tik gorako balioak, 0tik 10erako eskalan. Zenbait alde daude familiek eta erabiltzaileek egindako balorazioen artean, familien puntuazioak zertxobait hobeak baitira alderdi gehienetan.

Blas de Otero eguneko arreta-zerbitzuarekiko gogobetetasunaren batez besteko balorazioak

	Alderdi orokorrak	Zerbitzuak / Prestazioak	Arreta profesionala	Espazio fisikoa	Gogobetetasun orokorra
Senideak (2013)	9,18	8,99	-	9,14	9,31
Senideak (2015)	8,5	8,38	-	8,6	8,61
Senideak (2016)	8,9	8,7	-	8,7	8,7
Erabiltzaileak (2013)	8,74	8,90	9,25	9,24	9,45
Erabiltzaileak (2014)	8,76	9,10	9,35	9,10	9,38
Erabiltzaileak (2015)	8,24	8,70	8,90	8,71	9,21
Erabiltzaileak (2016)	8,58	8,38	8,76	8,49	8,97

Iturria: Blas de Otero eguneko arreta-zerbitzuarekiko gogobetetasunari buruzko azterlanak (2013-2016). Sirimiri Servicios Socioculturales, S.L.

Beato Tomás de Zumárraga eguneko arreta-zerbitzuarekiko gogobetetasunaren batez besteko balorazioak

	Alderdi orokorrak	Zerbitzuak / Prestazioak	Arreta profesionala	Espazio fisikoa	Gogobetetasun orokorra
Senideak (2013)	9,02	9,05	-	8,63	9,08
Senideak (2015)	8,9	8,8	-	8,6	8,9
Senideak (2016)	9,3	8,9	-	8,8	9,3
Erabiltzaileak (2013)	7,96	8,57	8,96	8,41	8,50
Erabiltzaileak (2014)	7,72	8,14	8,66	8,36	8,35
Erabiltzaileak (2015)	8,26	8,58	8,98	8,86	9,05
Erabiltzaileak (2016)	8,68	8,93	9,17	8,94	9,12

Iturria: Beato Tomás de Zumárraga eguneko arreta-zerbitzuarekiko gogobetetasunari buruzko azterlanak (2013-2016). Sirimiri Servicios Socioculturales, S.L.

Tutoretzapeko apartamentuen kasuan, 2013an, 2014an, 2015ean eta 2016an baloratu da haien gogobetetasuna, eta emaitzak oso positiboak izan dira; hain zuzen ere, puntuazio gehienak 8tik gorakoak dira, 0tik 10erako eskalan.

**Beato Tomás de Zumárraga eta Blas de Otero apartamentuekiko gogobetetasunaren batez
besteko balorazioak**


	Alderdi orokorrak	Zerbitzuak	Arreta profesionala	Espazio fisikoa	Gogobetetasun orokorra
Beato Tomás de Zumárraga (2013)	8,89	8,90	9,31	9,08	9,25
Beato Tomás de Zumárraga (2014)	9,18	9,54	9,58	9,35	9,74
Beato Tomás de Zumárraga (2016)	9,44	9,35	9,56	8,39	8,78
Blas de Otero (2013)	8,97	8,94	9,26	8,71	8,66
Blas de Otero (2014)	7,97	8,15	8,46	8,77	8,50
Blas de Otero (2015)	8,65	8,84	8,87	8,75	8,55
Blas de Otero (2016)	7,68	8,42	8,68	8,65	8,48

Iturria: Beato Tomás de Zumárraga eta Blas de Otero apartamentuetako zerbitzuarekiko gogobetetasunari buruzko azterlanak (2013-2016). Sirimiri Servicios Socioculturales, S.L.

Produktu-adierazleak

Planean, gizarte- eta osasun-zerbitzuen eremuak bederatzi ekintza espezifiko zituen bere lagunkoitasuna hobetzeko. Ekintza horiek 17 adierazletan banatzen ziren, ekintza horien betetze-maila neurtzeko. Adierazle horietatik guztietatik, % 29,4 ezin izan dira baloratu, ez baitago haiei buruz beharrezkoa den informaziorik. Informazioa baduten gainerako adierazleetatik, % 50ek betetze-maila handia izan dute; % 33,3k, betetze-maila ertaina; eta % 16,7, berriz, ez dira gauzatu.

Gizarte- eta osasun-zerbitzuak: betetze-maila



Iturria: geuk egina.

Betetze-maila handiena duten ekintzak Gizarte Politiken eta Osasun Publikoaren Sailaren menpe daude, eta hauek dira: informazio-kanpaina bat egitea, paperean, dauden baliabide eta zerbitzuen berri emateko; gizarte-zerbitzuen eta adinekoen zentro soziokulturalen berri ematea; mendekotasunaren prebentzio-baliabideak eta adinekoek etxean bizitzen jarraitzekoak indartzea; eta Adinekoak Zaintzen dituzten Familiei Laguntzeko Programa Integrala indartzea.

Aldiz, ez da hausnarketarik egin leihatila bakarreko ereduaren inguruan, eta ez da proposatu geriatrarik sartzea osasun taldeetan. Bi ekintzak erakunde desberdinen menpe daude; besteak beste, Aldundiaren eta Eusko Jaurlaritzaren menpe.

Gizarte- eta osasun-zerbitzuak: betetze-maila, adierazlearen arabera

EKINTZAK	ADMINISTRAZIOA / ATALA / SAILA	ADIERAZLEAK, BANAKATUTA	BETETZE-MAILA	OHARRAK
Leihatila bakarreko ereduari eta erakundeen arteko koordinazio-mekanismoei buruz hausnartzea.	EUSKO JAURLARITZA ALDUNDIA UDALA	Leihatila bakarreko ereduaren ezartzeko gauzatutako ekintzak.	Ez da gauzatu	Ez da gauzatu.
		Erakundeen arteko koordinazio-mekanismoak aplikatzeko gauzatutako ekintzak.	Ertaina - Handia	2016: gizarte-zerbitzuen erakundeen arteko koordinazioa (Udalaren eta Aldundiaren arteko koordinazioa, gizarte-zerbitzuetako eskumenak berrantolatzeak). 2013, 2014, 2015 eta 2016: koordinazio soziosanitarioa (Udalaren eta Osakidetzaren artekoa: koordinazio-protokoloa Udalaren oinarritzko gizarte- eta osasun-zerbitzuetako lehen mailako arretan, eta Udalaren osasun- eta gizarte-zerbitzuen arteko koordinazio-protokoloa buruko osasunean).
Osasunaren Garapenerako Planeko ekintzak garatzea.	GIZARTE POLITIKEN ETA OSASUN PUBLIKOAREN SAILA	Planaren betetze-maila.	Ertaina - Handia	Plana oraindik indarrean dago. Jardunen % 48,53 2015ean amaitu ziren; % 13,97 oso aurreratuta daude; eta % 19,85 duela gutxi jarri dira martxan.
		Gauzatutako ekintza kopurua	Ertaina	Gauzatze-fasean dago Plana. Hogei bat ekintza daude martxan, laguntzeko, zaintzeko eta bizitza osasuntsua eta osasunaren inguruko ezagutza sustatzeko gizarte-inguruneak sortze aldera.

Informazio-kanpaina bat egitea, paperean, dauden baliabide eta zerbitzuen berri emateko. Gizarte-zerbitzuetatik eta adinekoen zentro soziokulturaletatik informazioa bidaltzea.	GIZARTE POLITIKEN ETA OSASUN PUBLIKOAREN SAILA	Gauzatutako informazio-kanpainen kopurua.	Handia	Kanpaina bakarra egin zen, baina hedapen handia izan zuen.
		Informazioa banatzeko puntuak handitzea.	Handia	Banaketa-puntuaren kopurua handitu da: webgunea, osasun-zentroak, 010...
Mendekotasunaren prebentzio-baliabideak eta adinekoak etxean bizitzen jarraitzeak indartzea.	GOFE GIZARTE POLITIKEN ETA OSASUN PUBLIKOAREN SAILA	Udal zerbitzuen estaldura handitzea.	Handia	Estaldura handitu da, baita adinekoentzako zerbitzuetan dauden plazen kopurua ere.
		GOFEren eskumeneko zerbitzuen estaldura handitzea.	Ezin da baloratu	Ez dago daturik.
		Udal baliabide eta zerbitzuetan artatutako pertsona kopurua.	Handia	Handitu egin da zerbitzu guztietan artatutako adinekoen kopurua; batez ere, Udalaren laguntza ekonomikoetan izan da gorakada proportzional handiena, eta larrialdietako prestazio ekonomikoaren kopurua handitu da gehien.
		GOFEren eskumeneko zerbitzuetan artatutako pertsona kopurua.	Ezin da baloratu	Ez dago daturik.
Adinekoak Zaintzen dituzten Familiei Laguntzeko Programa Integrala indartzea.	GIZARTE POLITIKEN ETA OSASUN PUBLIKOAREN SAILA	Martxan jarritako indartze-jarduerak: hedapena, jarduera berriak...	Handia	Programa indartzeko, ekintza hauek egin ziren: iritzi taldeak sortzea, elkarrekin zaintzeko guneak sortzea, «Etxean ikasten» zerbitzua eskaintzea, ikastaroak eta tailerrak zuzenean erreserbatzea, eta beste gizarte-langile bat sartzea programan.
		Artatutako familia kopurua.	Handia	94 familia berri.
Mendekotasuna eta Banako Arreta Plana baloratzeko epeak hobetzea.	GOFE	Epeak laburtzea.	Ezin da baloratu	Ez dago daturik.
Mendekotasunerako arreta-sistema baliabide gehiagoz	GOFE	Zerbitzuen estaldura	Ezin da baloratu	Ez dago daturik.

hornitzea, mendeko adinekoek zerbitzuak erabili ahal izan ditzaten, bereziki eguneko zentroak eta egoitzak.		handitzea.		
		Artatutako pertsona kopurua.	Ezin da baloratu	Ez dago daturik.
Osasun taldeetan geriatrik sar daitezen proposatzea.	EUSKO JAURLARITZA	Era horretako jardunak aztertzeo gauzatutako ekintzak.	Ez da gauzatu	Ez da gauzatu ekintza.
Adinekoen arreta hobetzeko, erakundeen arteko koordinazioa ahalbidetzea: Udala-Aldundia, Eusko Jaurlaritza.	EUSKO JAURLARITZA ALDUNDIA UDALA	Erakundeen arteko koordinazioa eta esperientziak ugaritzea. Gauzatutako ekintzak.	Ertaina - Handia	2016an, elkarlanean hasi ziren Eusko Jaurlaritza, lehen mailako osasun-arretako zentroak eta oinarritzko zerbitzuak, adinekoiei tratu txarrak ematen ote zaizkien detektatzeko eta baloratzeko prozesu bat ezartzeko. Gainera, oinarritzko lankidetzak-hitzarmen bat sinatu zuten Udalak eta Arabako Aldundiak, gizarte-zerbitzuen arloko eskumenak berrantolatzeke.

Iturria: geuk egina.

Emaita-adierazleak

Talde fokalek gizarte- eta osasun-zerbitzuei buruz dituzten pertzepzioak oro har positiboak dira. Gizarte-zerbitzuen eremuan, nabarmentzekoak dira telelaguntza-zerbitzuak eta tutoretzapeko apartamentuek jaso dituzten balorazio onak. Etxez etxeko laguntza-zerbitzuak jaso ditu kritika gehien, pertsonen beharretara egokitzerakoan mugak dituela uste baita.

Oro har, osasun-zerbitzuek balorazio positiboa jaso dute. Alderdi negatibo bakarra aipatu da; hain zuzen ere, ospitalearen kokapen txarra.

2011ko diagnostikoa eta 2017ko ebaluazioa alderatuta egindako azterketan, eremu honetako alderdi negatiboak mantentzen direla nabarmentzen da. Hauek dira alderdi negatibo horiek:

- Izapide gehiegi eta oso konplexuak egin behar izatea zerbitzu edo baliabide gehienak eskatzeko.
- Dauden zerbitzu eta baliabideei buruzko informaziorik ez izatea. Gauza bera esan zen komunikazioaren eta informazioaren eremuan.
- Itxarote-zerrenda luzea egotea osasun-aditu batek artatu ahal izateko.
- Egoitzetako plazak garestiak izatea.

Eragile garrantzitsuekin egindako elkarrizketetan ere beharrezkotzat jo zen izapideak gehiago sinplifikatzea eta zerbitzuak pertsonen beharretara egokitzea.

Eztabaidagai honetan, agerian geratu ziren taldeetako partaide batzuek immigrazioari buruz zituzten estereotipo negatiboak. Pertsona horiek pertzepzio negatiboa dute etorkinek gizarte-zerbitzuak erabiltzeko moduari buruz.

Diagnostikoko eta ebaluazioko taldeetan eztabaidatutako alderdi positiboen eta negatiboen kopuruarekin alderatuta, badirudi behera egin duela alderdi negatiboen kopuruak. Hortaz, esan dezakegu hobetu egin direla baliabide horiek erabiltzearen inguruko pertzepzioak.

Talde fokalak: alderdi positiboen eta negatiboen kopurua (2011-2017)

	Alderdi positiboak		Alderdi negatiboak	
	Kop.	%	Kop.	%
2011ko diagnostikoa	7	33,33	14	66,67
2017ko ebaluazioa	7	43,75	9	56,25

Iturria: geuk egina.

BESTE EKIMEN BATZUK

Planeko ekintza propioez gain, urteetan zehar, beste ekimen batzuk ere jarri ziren martxan «Vitoria-Gasteiz, adinekoekin adeitsua den hiria» proiektuari lotuta. Hona hemen ekimen horietako batzuk:

Aktibatu zure auzoa adinekoen zentro soziokulturalek martxan jarritako ekimen bat da, hiria adinekoekin lagunkoiagoa izan dadin. Ekimen horren helburua da auzoak erosoagoak eta irisgarriagoak izatea eta adineko guztientzat errazagoa izatea eguneroko jarduerak egitea, harremanak izatea eta kaleetan barrena paseatzea. Azken batean, denak hobeto eta autonomia handiagoarekin bizitzea da helburua. Oraingoan, Landazuri eta Pilar auzoetan jarri da martxan, eta, bertan, adinekoek, herriko dendeak, eragile sozialek eta auzotarrek hartzen dute parte.

Aktibatu zure auzoa ekimenaren barruan, **ibilbide seguruak** sortu dira, irudi propioa duten hiriko ibilbideak. Haien bidez, adinekoen autonomia sustatzen da, eta, horrela, pertsona horiek segurtasunez joan daitezke auzoko toki batetik bestera.

Era berean, ekimen horren bidez, **Establezimendu lagunkoiak** programako prestakuntza-tailerrak ezarri ziren. Ekimen honen helburua establezimenduak lagunkoiagoak izan daitezen lortzea da, eta toki horiek adinekoen beharretara egokitzeko prozesuan aurrera egitea, adinekoek bizi diren ingurunean ahalik eta modurik autonomoenean bizitzen jarrai dezaten. Batetik, Vitoria-Gasteizko zentro soziokulturaletako taberna eta kafetegien bidez eta Arabako Dendarien Federazioko eta GasteizON elkarteko denden bidez egin zen lan dendeekin. Beste prestakuntza-saio batzuk ere egin ziren «Aktibatu zure auzoa» programaren barruan; besteak beste, gizarte-etxeetan eta osasun-zentroetan. Guztira, 70 dendak hartu zuten parte.

Nabarmendu behar da Adinekoen Zerbitzuak, bere eskumenekoak diren Planeko ekintzez gain, hiria adinekoekin lagunkoia izatea sustatzen duten beste ekintza batzuk ere ezartzen dituela. Hala gertatzen da programa eta baliabide hauekin:

Adinekoen Zerbitzuaren webgunean, adinekoentzat interesgarriak diren gida eta dokumentu ugari daude; besteak beste, «**Eguneroko elikadura hobeto antolatzeke gomendioen gida**» eta «**Elikadura eta jarduera fisikoa egokia izateko gida**».

Ekintza Plana amaitzerakoan, bi ekintza lagunkoi sortu ziren; gero garatu dira, baina Planaren indarraldiko azken hilabeteetan sortu ziren. Batetik, **adinekoentzako aholkularitza juridikoko doako zerbitzua** sortu zen. Bertan, zer eskubide publiko dituzten aholkatuko diete Arabako abokatuek; prozesu judizialaren aurreko orientazioa emango diete; beharrezkoa izanez gero, ofiziozko abokatua jarriko diete, prozedura judizialean esku hartzeko; eta Arabako Abokatuen Elkargoko Orientazio Juridikoko Zerbitzura bideratuko dituzte. Bestalde, Vitoria-Gasteizek bat egin du **Hiri bihozbera** ekimenarekin. Proiektu horren bidez, herritarrek egoera ahulean dauden pertsonak (gehienak adin handikoak) zaintzen eta haiei laguntzen parte hartzea nahi da, eta bizitzako edozein arlotan zaintza hori bermatuko duten era guztietako ekintzak martxan jarri nahi dira.

ONDORIOAK

Betetze-maila neurtzen duten adierazleei dagokienez emaitza onenak dituen eremua **herri-partaidetzaren eta enpleguaren** eremua da, eremu horretako adierazle guztiei buruzko informazioa baitago eremua baloratu ahal izateko eta ekintzen % 71,4 ezarri baitira. Hemen garatutako ekintzen artean, nabarmentzekoak dira udal partaidetzako ereduarekin eta adinekoen zentro soziokulturalak kudeatzen dituzten adinekoen batzordeekin erlasionatutakoak. Azken urteotan, Vitoria-Gasteizko Udalak garrantzi handia eman dio herri-partaidetza sustatzeari; hala, espazio berriak sortu ditu eta Udalaren eta herritarren arteko komunikazioa erraztu du. Horren adibide dugu Herritarren Partaidetzarako Plana. Enpleguaren eremuari dagokionez, Planean ez ziren bildu ekintza espezifikoak, eta, gai honi buruz hitz egiterakoan, talde fokalek beti gazteen arteko enplegu-tasa handitzea aipatzen zuten, baina ez zitzairen garrantzitsua iruditzen lan-merkatuan jarraitu nahi duten adinekoentzat enplegu malgua sortzea.

Eremu honetan (eta komunikazioaren eta informazioaren eremuan) ditugu adierazleen % 100. Eremu hauetan falta dira adierazle gehien ebaluazioa egin ahal izateko: garraioa (% 42,9 ebaluatu gabe), eta gizarte- eta osasun-zerbitzuak (% 29,4). Hala ere, kontuan izan behar da adierazle gehienak Vitoria-Gasteizko Udala, Aldundia edo Eusko Jaurlaritza ez beste erakunde batzuen menpe daudela.

Garraioaren eremuan, bildutako adierazleetatik (% 57,1), betetze-maila oso handia da kasuen % 75en. Hemen, nabarmentzekoa da zer betetze-maila handia izan duten Mugikortasun Iraunkorreko Planeko ekintzek, baita garraibideetako profesionalek jendeari ematen dioten arreta hobetzeko martxan jarritako ekintzek ere. Ekintza horrek garrantzi berezia du, diagnostikoan adinekoek sarrien eskatutako hobekuntzetako bat izan baitzen. Talde fokaletan, gogobetetasun handia ikusi zen, baita ere, azken urteotan garraioak izan duen hobekuntzarekiko, nahiz eta behin eta berriro eskatu zen baliabide honetako profesionalek ematen duten tratua hobetzeko. Bildutako oinarritzko adierazleek eremu honetako emaitza onak berresten dituzte; kasu guztietan, 300 metrora baino gutxiagora dago garraibide kolektiboren bat. Azken urteotan, gora egin du zerbitzu horiek erabiltzen dituztenen kopuruak.

Errespetuaren eta gizarteratzearen eremuan daude adierazle gehien (21), eta ezarpen-emaitza oso onak dituzte. Adierazleen % 9,5 ezin dira baloratu, eta, gainerakoetatik, ia % 70ek betetze-maila handia dute. Berezi aipatzekoa da Berdintasun Plana eta Gazte Plana garatzearekin erlasionatutako betetze-maila handia (nahiz eta azken horretan ez dagoen adinekoentzako ekintza zehatzik), baina baita beste ekintza batzuen ere; esaterako, tratu txarrak hautemateko, saihesteko eta desagerrarazteko plana, belaunaldien arteko programa kopuruaren gorakada; bakarrik dauden adinekoak aurkitzeko, haien berri emateko eta haiei laguntzeko kanpaina; eta adinekoak zaintzen dituzten familiei laguntzeko programa integrala indartzeko ekintza. Ekintza horiek guztiak Gizarte Politiken eta Osasun Publikoaren Sailaren menpe daude. Talde fokaletan, pertzepzio orokorra izan zen hobetu egin zela adinekiko errespetua eta haien gizarteratzea hirian, baina zenbait alderdi hobetu behar zirela ere aipatu

zen; besteak beste, mendeko pertsonen gizarteratzea sustatzea; edo gaur egungo gizartean bizitza komunitarioa galdu izatea, bereziki auzotarren artean.

Bestalde, **komunikazioaren eta informazioaren** eremuan ere emaitza positiboak izan ziren, bai gauzatutako ekintzei dagokionez, bai talde fokalen balorazioari dagokionez. Lehen esan dugun bezala, Planeko adierazleen % 100 bildu dira. Erdiak baino zertxobait gehiagok lortu du betetze-maila handia. Bai elkarrizketatutako pertsonen bai taldeetan parte hartu zutenek positiboki baloratu zuten Udalak komunikazioan egindako ahalegina, eta nabarmendu zuten eginkizun garrantzitsua dutela adinekoen zentro soziokulturalek. Kontuan izan behar da sortutako taldeetan parte hartu dutenak maiz joaten direla horrelako zentroetara; hortaz, esan daiteke beste edozeinek baino hobeto ezagutzen dutela baliabide hori. Halaber ikusi da zentro horiek inplikazio handia dutela hobekuntza-ekintzetan; hala, baliabide horiek egin dituzte aldaketa gehien, eta eremu honetako ekintzen betetze-mailarekin erlazionatuta daude. Emaitza positiboak izan ziren, baita ere, Planeko oinarritzko adierazleetan; haien artean, nabarmentzekoa da azken urteotan gero eta gehiago erabili direla Vitoria-Gasteizko herritarrentzako arreta-bulegoak, webgunea eta 010 telefono-zenbakia. Beste muturrean, hobetzeko alderdi gisa, talde fokalek aipatu zuten hobetu egin behar zela Udalak eskaintzen dituen zerbitzu eta baliabide batzuetako komunikazioa; besteak beste, etxez etxeko arreta-zerbitzua, eguneko zentroak, etab. Talde fokalen ustez, zerbitzu horiek jasotzea zailagoa da eta jende askok ez du jasotzen informazioa.

Gizarte- eta osasun-zerbitzuei dagokionez ere, emaitza orokorrak positiboak dira. Ezarritako adierazleen erdiek baino gehiagok betetze-maila handia dute. Taldeetan parte hartu zutenek oro har iritzi positiboa zuten, baina garbi geratu zen, baita ere, ez zekitela zer tramite egin behar diren eta zer baliabide dauden. Talde horiek adinekoentzako baliabide hauek baloratu zituzten ongien: telelaguntza eta tutoretzapeko apartamentuak. Bildutako oinarritzko adierazleetan ere ikusi da gogobetetasun handia dagoela adinekoentzako baliabideekiko; esaterako, eguneko arreta-zentroak eta tutoretzapeko pisuak. Bai elkarrizketatutako pertsonen bai taldeetakoek aipatu dutenez, lagunkoitasun-maila handia lortzeko ezinbestekoa da, besteak beste, administrazio-tramiteak erraztea gizarte-zerbitzu eta -baliabideak eskatzeko. Horrek zeharka eragingo lieke Gizarte Politiketako eta gainerako erakunde eskudunek (Aldundia eta Eusko Jaurlaritza) martxan jarritako zerbitzu eta programa guztiei. Kontuan izan behar da Plana ebaluatzerakoan ez direla aztertu Aldundiak edo Eusko Jaurlaritzak eskaintako zerbitzu eta baliabideei buruzko datuak, ez baitzegoen horretarako behar zen informaziorik.

Bestalde, **gizarte-partaidetzaren** eremuan, Planak biltzen dituen zazpi adierazleetatik, bakarrak lortu du ezarpen-maila handia, eta bik, berriz, ezarpen-maila ertaina/handia. Adierazle horiek guztiak adinekoen zentro soziokulturei buruzkoak dira. Nabarmentzekoa da talde fokaletan kontsultatu diren pertsonen aisiari eta gizarte-partaidetzari buruz esan dutena zentro horiekin erlazionatuta dagoela, eta oro har oso pozik daudela zentroekin eta eskaintzen dituzten aukera ugari eta askotarikoekin. Bildutako oinarritzko adierazleek ere emaitza onak dituzte eremu honetan; batez besteko notak onak dira adinekoen zentro soziokulturalak erabiltzen dituztenen gogobetetasunari dagokionez, azken urteotan gero eta adineko gehiagok erabiltzen dituzte kirol-instalazioak, eta adinekoen % 18k hartzen dute parte gizarte-etxeetan, 2011n bezala. Hobetu beharreko alderdien artean, talde fokalek aipatu dute handitu egin

behar dela jarduera eta tailerretako plaza kopurua. Ildo horretan, esan behar da plaza horien kopurua % 12,16 handitu dela azken urteotan.

Etxebizitzari dagokionez, esan behar da ezarritako zazpi ekintzetatik bik soilik lortu dutela betetze-maila handia: bizigarritasuna hobetzeko laguntza-ildo berriak aztertzea, eta erorketak saihesteko programa indartzea. Elkarriketatutako funtsezko pertsonen nabarmendu dute garrantzitsua dela etxebizitza hobetzea hiria lagunkoia izan dadin, eremu honetan oraindik ere erronka asko baitaude, nagusiki eraikinen irisgarritasunari lotutakoak. Hobetu beharreko beste alderdi bat ere aipatu zuten taldeetako kideek; hain zuzen ere, auzotarrekiko elkarbizitza landu behar dela, arazo asko baitaude eta arazo horiek argi eta garbi eragiten baitiete hiriko eguneroko bizitzari eta lagunkoitasunari. Bildutako oinarritzko adierazleen artean, nabarmentzekoa da, itxuraz, 2012tik behera egin duela etxebizitza berriaren prezioak. Adierazle hori etxebizitzaren arrazoizko prezioari buruzko adierazle garrantzitsua da.

Azkenik, aire zabaleko espazioen eta eraikinen eremuak izan ditu emaitza kaskarrenak Planeko ekintzak ezartzeari dagokionez. Informazioa baduten eremu honetako adierazleen ia erdiak ez dira gauzatu, edo gutxi gauzatu dira. Hala ere, kontuan izan behar da Udalak bildutako oinarritzko adierazleetan emaitzak oso handiak direla; hots, % 80koka kasu gehienetan (adierazle horiek Vitoria-Gasteizko oinarritzko zerbitzuak eta gune publiko irekiak 300 metro baino gutxiagora edo 500 metrora baino gutxiagora dituzten biztanleen portzentajeak dira). Zenbait alderdi positibo ere aipatu ziren talde fokaletan; hain zuzen ere, kale eta eraikin publikoen irisgarritasuna handitzearekin erlazionatutako hobekuntzak, eta parke eta berdeguneekiko gogobetetasuna. Hauek dira Planean ageri diren eta betetze-maila eskasa dutelako hobetu behar diren elementuetako batzuk: pixalekuen kopurua handitzea; lapurretak, iruzurrak, etab. saihesteko prestakuntza-ekintzak handitzea; kaleetako seinaleak hobetzea; eta semaforoaren iraupena aztertzea. Txirrindulariak eta oinezkoak sentsibilizatzeko beharraz ere hitz egin zen talde fokaletan. Arazo hori ere aipatu zen aurretik; Planeko hainbat ekintzatan sartu zen, eta ekintza horiek betetze-maila handia izan dute.

Oro har ondoriozta dezakegu Vitoria-Gasteiz aurrera egin duela lagunkoitasunean, nahiz eta oraindik alderdi zehatz ugari hobetu behar diren. Lagunkoitasun-proiektuak etengabe hobetzeko egitura zikliko bat du, eta, bertan, beti daude aurrera egiteko aukerak zahartuz doazen pertsonen bizimodua erraztuko dien ingurune bat sortzeko. Ebaluazio hau abiapuntua da hiriaren egoeraren diagnostiko gisa.

Etorkizuneko proposamenak

«Vitoria-Gasteiz, adinekoekin adeitsua den hiria» ekimenak amaiera eman dio OMEren etengabeko hobekuntzaren lehenengo zikloari, Udaleko Adinekoen Zerbitzuak egindako ahaleginari esker. Zerbitzu horrek modu autonomoan egin du lan, OMEk ezarritako metodologiari jarraikiz, eta esperientzia aitzindarietako bat izan da, bai Euskadin, bai Estatuan. Hori dela eta, oinarritzat hartu da ekimena beste udalerrri batzuetan ere martxan jartzeko eta hura garatzearren ezagutza sor dadin sustatzeko.

Ekimena garatzeko prozesuan aurkitu diren erronketako batzuk esperientzia berritzailea izatearekin erlazionatuta daude, beste ekimen batzuetatik hartutako ezagutzak, baliabideak, metodologiak edo irakaspenak partekatzeko aukerarik gabe hasi zena. Aldi berean, ekimen berritzailea izatearen indargunea ahulgunea ere bada, ezin izan baitu beste esperientzia batzuetatik ikasi edo laguntza jaso. Hala ere, haren aurrerapenak eredu dira beste hiri batzuetarako, baita prozesuan zehar hobetu beharreko alderdiak ere. Ikasitakoak oinarri gisa balio du etengabeko hobekuntzako proiektuak garatzeko, era horretako proiektuetan ikastea funtsezkoa baita aurrera egiten jarraitzeko.

Hona hemen ekimena etorkizunean garatzeko proposamenetako batzuk:

Prozesuari dagokionez:

1. Lidergo politikoa areagotzea. Ezinbestekoa da Udaleko maila politiko gorenaren inplikazio ideologikoa eta praktikoa lortzea. Hiri lagunkoien proiektuak udalerrietako eremu guztietan eragiten du; hortaz, maila gorenaren babesa behar du martxan jartzeko eta behar bezala garatzeko.
2. Zahartzeari buruzko zeharkako ikuspegia indartzea. Udalaren atal guztiek hartu behar dute parte ekimenean. Zahartzea eremu eta sail guztietatik aztertu behar da, gai askotarako garrantzitsua delako; esaterako, etxebizitza, osasuna, partaidetza, garraioa eta hirigintza. Zeharkakotasuna erakunde gehienetan ohikoenak diren mugetako bat da. Haren garapenak kultura eta egitura partekatu bat sortzea dakar. Erakunde baten barruan proiektu bat zeharkakoa izan dadin, beharrezkoa da, aurretik, funtzionamendu horrekin bat egingo duten mekanismoak eta bideak ezartzea eta mekanismo eta bide horiek erakundeko maila gorenek ezarritakoak izatea.
3. Beste eragile publiko, pribatu eta sozialekin sarean lan egin dadin sustatzea. Eremu guztiak sartzeaz gain, hirian eragina duten eragile guztiak ere inplikatu behar dira. Hiri bat lagunkoia izan dadin, herri-mugimendu bat jarri behar da martxan, eta, mugimendu horretan, udalerriko establezimenduak, elkarteak eta zerbait egiteko aukera duten beste erakunde batzuk barneratu behar dira.
4. Sailen arteko organo bat sortzea, zeharkakotasuna bermatzeko; organo horrek udalerriko beste eragile batzuen ordezkariek ere hartzen ditu barnean (publikoak, pribatuak eta sozialak).

5. Herritarren Partaidetzarako Planaren esparruan sortutako partaidetza-eremuak kaleko jende gehiago inplikatzeko erabiltzea. Herritarrek inplikatzeko da ekimen honen elementu bereizgarri eta funtsezkoetako bat. Aukera gisa, Udalak sortutako bideak erabiltzea ezartzen da, adinekoen auzogune edo elkarguneen bidez, baita beste partaidetza-esperientzia batzuk ere (esaterako, adinekoen zentro soziokulturaletako batzordeak). Azken urteotan, Vitoria-Gasteizko Udalak herri-partaidetza sustatzen jardun du. Hortaz, une honetan, lagunkoitasun-proiektuak baditu adinekoen inplikazioa eta ahalduntzea handitu ahal izateko tresnak eta espazioak.
6. Proiektuaren berri emateko kanpainak sustatzea, eta, horretarako, Udalak dauzkan komunikazio- eta informazio-bideak erabiltzea.
7. Udalak aldian-aldian egiten dituen elkarrizketetan oinarrizko adierazle zehatzak sar daitezen proposatzea, udalerriko lagunkoitasuna zer aurrerapen izaten ari den ebaluatu ahal izateko, ekitate-aldagaiak kontuan hartuta (sexua, adina, auzoa, etab.).

Etorkizuneko proposamen horiek martxan jartzeko, zeharkakotasun- eta partaidetza-prozesuak sortu behar dira, eta, prozesu horietan, funtsezkoa da aurretik garatzea Udalaren sailarteko organoa eta adinekoek lideratzen etaosatzen dituzten auzogune edo elkarguneak.

Ekintzari dagokionez:

Ebaluazioan hautemandako ekintzak:

1. Mendeko pertsonen hiriko baliabide eta espazioak erabil ditzaten sustatzea; bereziki, biztanleria talde horren zahartze aktiboa. Normalean, laguntzaren bidez egiten da lan biztanleria talde horrekin.
2. Hirian pixaleku gehiago jartzea. Komun garbiak, estrategikoki kokatuak, irisgarriak eta ondo seinalizatuak izatea udalerrira lagunkoia izatearen ezaugarri bat da. Hiri askotan komun publikoak ixteko joera dago, baina ekintza hori proiektuaren helburuen kontra dago. Jende gehien ibiltzen den tokietan komun publikoak egoteak aire zabaleko espazioetako partaidetza sustatzen du. Komunik ez egotea erabakigarria da behar jakin batzuk dituzten pertsona askok etxetik kanpoko bizitzan parte hartzeari utz diezaioten.
3. Hiriko hainbat tokitan herritarren segurtasuna handitzea eta lapurretak eta iruzurrak saihesteko ekintzak sustatzea. Segurtasunaren pertzepzioak eragin zuzena du gizarte- eta herri-partaidetzan. Adinekoek segurtasunaren pertzepzio-indize handiagoak dituzte, ahultasun handiagoko egoera posibleei lotuta.
4. Adin handieneko pertsonen tratua egokia emateko eta egoki gidatzeko garraiobide publikoetako gidariei prestakuntza- eta sentsibilizazio-ekintzak egiten jarraitzea. Hiri barruan nahiz hiritik kanpo garraiobide publiko bat izatea funtsezkoa da pertsonen eguneroko bizitzarako. Adinekoen kasuan, garrantzi handiagoa du, zenbat eta urte gehiago izan, orduan eta muga handiagoak egon baitaitezke ibilgailu pribatuak gidatzeko. Halakoetan, garraio publikoa erabili behar da eguneroko bizitza egiteko.

5. Etxean bizitzen jarraitzea sustatzen duten ekintzei jarraipena ematea; hori da adineko gehienek nahi dutena, laguntza behar izanez gero.
6. Eraikinean igogailua instalatu behar izanez gero, auzotarren arteko gatazkak konpontzen lagunduko duen pertsona bat aukera dadin sustatzea.
7. Immigrazioari buruzko estereotipo negatiboen aurka esku hartzeko eta sensibilizatzeko programak bultzatzea eta auzotarren arteko harremanak (baita atzerritarrak badira ere) areagotzeko ekintzak sustatzea.
8. Tratu desagokiko edo tratu txarreko egoerak hautemateko, saihesteko eta desagerrarazteko planeko ekintzekin jarraitzea, baita profesionalak tratu egokia ematearekiko sensibilizatzekoak ere.
9. Belaunaldien arteko harremanen eta auzotarren sarea sustatzearen inguruko ekimenekin jarraitzea. Auzotarrek oso eginkizun garrantzitsua dute adinekoen bizitzan; bereziki, bakarrik bizi direnen bizitzan.
10. Adinekoen zentro soziokulturaletan egindako lanarekin jarraitzea; hau da, aisia aktiboa sustatzea, ahulenak inplikatzeko eta haien partaidetza bultzatzea.
11. Herri-partaidetzako baliabideak erabiltzea (hala nola elkarguneak, auzoguneak eta gizarte-kontseilua) proiektua garatzeko eta haietako bakoitzean adinekoen presentzia sustatzeko.
12. Berariaz adinekoentzat diren baliabide sozialei buruzko komunikazio- eta informazio-kanpainak sortzea.

Beste ekintza batzuk:

Horretaz gain, badira kontuan hartu beharreko beste ekintza batzuk ere, gaur egungo joera soziodemografikoen arabera identifikatutakoak. Hona hemen lagunkoitasun-proiektuaren esparruan etorkizuneko ekintzetarako inspirazio gisa erabil daitezkeen ekintza batzuk.

13. Dementzia duten pertsonekin lagunkoia den hiri bat eraikitzeke ekintzak sustatzea; haien autonomia eta partaidetza aktiboa bultzatzea.
14. Bakarrik bizi nahi ez dutenei laguntzea. Batetik, auzoko gizarte-sarea sustatzea eta bakardadea kudeatzen eta hartaz gozatzen lagunduko duten gaitasunak eta ahalmenak garatzeko ekintzak bultzatzea; eta, bestetik, boluntariora-elkarteei laguntzea, bakarrik bizi diren pertsonen lagun egin diezaieten.
15. Era guztietako lanak egiterakoan (etxeko lanak, zainketa-lanak, etab.) eta aisiarako eskubideaz baliatzerakoan emakumeak eta gizonak berdina direla sustatzea.
16. Zahartzen ari diren pertsonen banaka orientazioa eta aholkua emateko guneak sor daitezen bultzatzea, erabakiak arduraz eta etorkizunerako zer nahi den kontuan izanda har daitezen.

17. Lan-bizitzatik erretirora modu positiboan igarotzeko programak sustatzea.
18. Zahartze aktiboaren esparruan teknologia berriak erabil daitezen bultzatzea, adinekoen taldean dagoen arraila digitala txikitzeko.
19. Laguntza behar duten pertsonen egoitza tradizionalak ez beste bizitoki batzuk eskaintzeko zer aukera dauden aztertzea: cohousing, bizikidetza-unitateak, zerbitzuak eskaintzen dituzten apartamentuak, belaunaldien arteko esperientziak, etab.
20. Bizitza osorako etxebizitza, auzo eta urbanizazio berriak sortzean pertsonen bizi-zikloko edozein unetan izango dituzten beharrak kontuan hartuko direla bermatzea: dendak, zerbitzu publikoak hurbil eta eskura izatea, belaunaldi guztientzako topalekuak, parkeak, etab.
21. Baliabide eta zerbitzu guztietan ardatz gisa pertsona duen arreta sustatzea; bereziki, egoitzei dagokienez.
22. Zaintzen jarraipena bermatzea, gizarte- eta osasun-zerbitzuak koordinatuta.
23. Hiriko eragileek jardunbide egokiak sor ditzaten eta elkarri ezagutaraz diezazkieten sustatzea proiektuko eremu guztietan.

Bibliografia

Alvira, F. (1991): «Metodología de la evaluación de programas». *Cuadernos Metodológicos*, 2. zk., Madril, CIS.

Barrio, E. (2014): *Udalerrietan ezartzeko eta erabiltzeko gida: Euskadi Lagunkoia*. Enplegu eta Gizarte Gaietarako Saila. Eusko Jaurlaritza.

Bustelo (1999): «Diferencias entre evaluación e investigación: una distinción necesaria para la identidad de la evaluación de programas». *Revista Española de Desarrollo y Cooperación*, 4. zk.; 1999ko udaberria/uda; Madril; 9.-29. or.

Davis, K.E.; Kingsbury, B. (2011): *Indicators as interventions: pitfalls and prospects in supporting development initiatives. A report prepared with support from the Rockefeller Foundation*. New York: Rockefeller Foundation; 2011.

Hernández, J. eta Martínez, P. (1996). «Propuesta metodológica para evaluar programas de orientación educativa». *Revista Electrónica de Investigación y Evaluación Educativa*, 1996. 2. liburukia, 2_1 zenbakia.

López, M.; Gentile, N. (2010): «Sistemas de indicadores económicos y sociales: la importancia del análisis integrado».

OME (2007): *Guía: Ciudades Globales Amigables con los mayores*. Geneva.

OME (2015): *Guía para el uso de los indicadores básicos. Medición del Grado de Adaptación de las Ciudades a las Personas Mayores*.

Sancho, M. (2010): «Cien Propuestas para Avanzar en el Bienestar y el Buen Trato a las Personas que Envejecen. Bases para un Plan de Acción». Enplegu eta Gizarte Gaietarako Saila. Eusko Jaurlaritza.

OME (2002): *Active Ageing: A Policy Framework*. Geneva.

OME (2007): *Age-Friendly Cities Project Methodology: Vancouver Protocol*. Geneva.

OME (2014): *Global Network of Age-friendly Cities and Communities*. OME. http://www.who.int/ageing/projects/age_friendly_cities_network/en/



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

MATIA
INSTITUTO GERONTOLÓGICO